

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Zaldibar



Aurkibidea

Udalerria: Zaldibar

Sarrera



Durungaldeko herri hau Bizkaia eta Gipuzkoaren arteko mugan dago. Herri hauek ditu mugakide: iparraldean Mallabia eta Ermua; hegoaldean Elorrio; sortaldean Eibar eta Elgeta; eta, sartaldean, Berriz. Metalaren arloko industria da nagusi gaur egun eta lantegi askok atzerrian saltzen du bere produktua. Honako hauek dira aipagarrienak: burdinolak, metalezko irarpenak, makina-erremintak, ehiza-eskopetak, giltzak, umeentzako kotxeak, autoentzako industria laguntzailea eta aroztegiak. Honako auzune hauek biltzen ditu herri inguruan: Goierri, Aranguren eta Gazaga. Eitzaga, Sallabente eta Olarreaga auzoak herrigunetik 8 kmra daude, Ermutik gertuago, eta bertako biztanleek Ermurako joera dute, bai harremanetan zein hizkeran. Zaldibarko bizilagun gehienak Ibaizabal ibarraren beherengo aldeetan, industria inguruan, bizi da, eta gainontzekoak, berriz, baserri inguruan sakabanatuta. Zaldibarren bertan, hau da, herribarruan, biztanleen %90 bizi da.

- **Biztanleak:** 2.877
- **Euskaldunak:** %49,3

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **27**
- Zintak: **38**
- Pasarteak: **272**
- Transkribatutakoak: **33**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **272**

Proiektuak

- Antxinako Berriz. Bizimodua eta ohiturak
- Dialektologia-EHU
- Durango 1936
- Ermua eta Eitzako euskara
- Ermuko Ahozko Ondarea
- Ermuko eta Mallabiko "Drogetenitturri" aldizkaria
- Zaldibarko ahotsak

Hizlariak

Jose Luis Abarrategi Garitaonandia (1931-2007)

Eitzaga auzoko Olaetxetxiki baserrian jaioa. Aita Olaetxeakoa zuen eta ama Goierrikoa. Artzaina labidez.

Pedro Abarrategi Garitaonandia (1929-2010)

Eitzaga auzoko Olaetxetxiki baserrikoa. Aita Olaetxeakoa zuen eta ama Goierrikoa.

Jose Mari Agirre Garitaonandia *Berdengillo* (1944)

Eitzaga auzoko Berdengillo baserrikoa.

Esteban Agirre Telleria (1920-2014)

1920an jaioa Sallabente baserrian. Nekazaria.

Isabel Aiarzaguena Aranzibia (1937)



Katike baserrian jaio zen, Urizar auzoan. Lau neba-arrebatatik zaharrena da. Aita Berrizkoa zuen eta ama Zaldibarkoa. Baserrian eman du bizimodua. Hala ere, baserriko beharrak baino, gehien gustatzen zitzaiona Eibarrera jeneroa saltzen joatea zen. Hamahiru urterekin hasi zen Eibarrera joaten: goizetan plazara jeneroa saltzen eta arratsaldetan eskolara. Oiloak ere asko zituzten etxean eta ahizpek esnea saltzen zuten Zaldibarren. Baserriko lanen inguruko kontuak kontatu zizkigun berarekin egon ginenean eta baita Eibarrera saltzen joaten zenekoak ere. San Juan ere berbagai izan genuen eta erlijioaren inguruko zenbait kontu ere bai, besteak beste.

Floren Arriaga Astarloa *Bizinai* (1930)

Eitzaga auzoko Bizinai baserrikoa.

Diego Arriaga Rementeria (1925)

Eitzaga auzoko Bizinai baserrikoa. 10 anai-arreba izan ziren.

Victoria Arriaga Rementeria *Bizinai* (1912-2015)



Zaldibarren barrutian dagoen Eitzaga auzoko Bizinai baserrian jaio zen 1912an eta hamar neba-arreben arteko neska nagusia izan zen bera. 12 urtera arte Eitzagan ibili zen eskolan; diktaketen koadernoak gordeta dauka, 1925eko data eta letra ederrarekin. 13 urterekin Eibarrera joan zen neskame, umezain. Tomas Lasuen eibartarrarekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituen. Elkarriketa garaian Ermuan bizi bazen ere, Eitzaga ingurukoak dira bere gogorapenak: teilagintza, errotak... Bere hizkerak Zaldibarkora baino Ermukora jotzen du gehiago.

Zipriano Askasibar Sagastigutxia (1927)



Zaldibarko Olarreaga auzoan jaio zen, baina umezaroa aitita-amamekin igaro zuen Elgetan. Gurasoak eurak ere Elgetakoak zituen eta andrea ere gipuzkoarra, hernaniarra hain zuzen ere. Olarreaga auzokoek Eibarrekin izan dute hartu-eman gehiena, gutxi Zaldibarrekin. Sasoia heldu zitzaionean, Armeria eskolan sartu zen eta ondoren aitaren torloju tailerra hartu zuen. Familiaren inguruko gorabeherak kontatu zizkigun berarekin egon ginenean, gerrakoak, lan munduaren ingurukoak eta baita soldaduskakoak ere.



Hilario Berasaluze Sarriugarte (1917-2007)

Zaldibarren jaioa. Ezkondu zenean Berrizko "Matzabeko" baserrira joan zen bizitzera. Berrizko antzinako bizimoduaren inguruko kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarriketa 2006an.

Pedro Bildosola Gorrotxategi Aberatsa (1911-2008)



1911an jaio zen Zaldibarko Eitzaga auzoko "Eitzaga-barrenengoa" baserrian. Auzoko eskolan ibili zen, baina denbora gutxian. Aitak teileria bat zuen etxetik gertu eta sarritan joaten zitzaion laguntzera. Eibarko "Orbea" lantegian behar egindakoa da eta handik datorkio makina eta motorrekin zirri eta zarra ibiltzearen zaletasuna. Dantza egiteko zaletasuna ere badu. "Aberatsa" gaitzizena jarri zioten erromerietara eta neska-laguntzera trajez jantzita eta gorbatarekin joatea gustatzen zitzaiolako. Zaldibarren jaio eta bizi arren, Ermua izan du beti gertuago eta bere euskaran nabaria da hori.

Pedro Garitaonandia Areitioaurtena (1933)



Zaldibarren jaio zen Estankozarra izeneko baserrian, elizaren ondoan. Umetan orduak ematen zituen elizpean pilotan jokatzeko eta hortik etorri zitzaion afizioa. Hamalau urter zituela partiduak jokatzeko hasi zen eta hamaseirekin debutatu zuen Legazpin. Hogeita hamalau urtera arte profesionaletan jokatzeko ibili zen, frontoirik frontoi. Hala ere, pilotarekin batera lanean ibili izan da beti. Profesional ibilitako urte horietan guztietan bizitakoak kontatu zizkigun berarekin egon ginenean: lehengo pilotariak, frontoiak, partiduak, materialak eta bizimodua, besteak beste.

Jose Mari Garitaonandia Gisasola (1927)



Zaldibarren jaio zen, eliza ondoko kaleko etxe batean. Ama Mallabikoa zuen eta aita Zaldibarkoa. Gurasoek denda eduki zuten eliza ondoan eta taberna ondoko lokalean. Bertan hasten ziren gazteak, hamabi bat urterekin, limonada eta gaseosa modukoak edaten. Herriko eskola utzi ondoren, goi-mailako ikasketak egin zituen Bilbon, Salamancan eta Bartzelonan. Ikasle garaiko kontuak kontatuko zizkigun berarekin egon ginenean, amaren dendakoak, tabernakoak eta umetako jolasak, besteak beste. [Juan Lasuen](#) lagunarekin batera egin genion elkarrizketa.

ZAL-001 Hizlari ezezaguna

Felisa Irulegi Uribarri (1934)



Zaldibarren jaio zen Goierri auzoan, Solozabal baserrian. Baserria autopista egin zutenean bota zuten. Aita eta ama ere Zaldibarrekoak zituen, aita Solozabalekoa bertakoa eta ama Arangurenakoa. Bost anai-arrebatatik gazteena da, alarguna eta hiru seme-alabaren ama. Baserrian fruta-arbolak saltzen zituztela kontatu zigun, eskola kontuak, jaiak, erlijio ohiturak eta San Juan ospakizunak, besteak beste.

Balendin Lasuen Solozabal (1924-2019)



Euskal idazle, politikari eta ikertzailea. Hainbat lan eta artikulua argitaratu zituen euskarazko zenbait aldizkaritan. 'Anaitasuna'n eta 'Zeruko Argia'n, esaterako. Bestalde, historia eta etnografia gaiak landu izan ditu euskaraz eta gaztelaniaz idatzi dituen berrogeitaka liburuxkatan. Herriko alkate izan zen 1976tik 1983ra. Eusko Jaurlaritzaren Bizkaiko kultura-ordezkarria izan zen eta baita Bizkaiko Batzar Nagusietako kidea ere, bi legealditan (1979-1982 eta 1983-1986 aldietan). Besteak beste, Durangaldeko Gerediaga Elkarteko lehendakaria izan zen eta baita Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kide ere. [Durango 1936](#) Elkartekoek egin zioten elkarrizketa, gerra garaiko kontuak jasotzeko.

Juan Lasuen Solozabal (1927-2014)



Gurasoak berriztarrak zituen eta baserrikoak, baina Juan Zaldibarko eliza ondoko etxe batean jaio zen. Amak denda eduki zuen elizaren ondoan, bai gerra aurretik eta baita gerraostean ere. Umetan, herrian sortu berri zegoen Ikastolara hasi zen, baina bi hilabeteren buruan gerra sartu eta desagertu egin zen. Soldadutzan zegoela koronelei botak egiten diru apur bat irabazi zuen Juanek, zapatagilea zen-eta. Zaletasunen artean, abestea gustuko du eta herriko orfeoian parte hartu izan du. Herriko giroaz egin zigun berba berarekin egon ginenean, euren dendaz, umetako kontuez eta soldadutzaz, besteak beste. [Jose Mari Garitaonandia](#) lagunarekin batera egin genion elkarrizketa.

Juan Lasuen Uribe-Etxebarria (1936)

Zaldibarren jaio zen, baserrian. Hala ere, gaztetan kalera bizitzera joan behar izan zuten, baserriaren jabetzarekin arazoak izan zituzten-eta. Aita Zaldibarkoa zuen eta ama Eskoriatzakoa. Lantegian ehizarako eskopetak egiten zituen eta berak ere afizio handia izan du ehizan. Berarekin egin genuen berbaldian [Jose Zalduegi](#) laguna izan zuen ondoan. Ehizaren gaineko kontuak kontatu zizkiguten, mutikotan bizitakoak, jaietako ohiturak eta gerrako pasarteak, besteak beste. Juan argazkian eskuman agertzen dena da.

Zezilia Mallabiabarrena Uruburu (1919-1997)

Eitzaga Goikoa baserrikoa. Ama Gernikakoa eta aita Areitiokoa (Mallabia). Senarra, berriz, Zestoakoa.

Eugenia Narbaiza Aranguren (1928)



Zaldibarren jaio zen, Urizar auzoko Azkorra baserrian. Gurasoak berriztarrak zituen eta bederatzi neba-arrebatatik hirugarrena izan da. Baserriko kontuak kontatu zizkigun berarekin egin genuen berbaldian (baserriaren jabetza, soroko beharrak...), jaiotzari lotutako ohiturak, umezaroko eta gaztezaroko kontuak eta Anbotoko Mariri buruzkoak, besteak beste.

Blanka Onaindia Garitaonandia (1951)



Zaldibarren jaioa, nahiz eta gurasoak mallabitarrak izan. Jesusa Garitaonandia raketistaren alaba. Amaren inguruko kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Higinia Ormaetxea Agirrebeña (1914-1997)

Etxebarrin (Sallabente) jaioa.

Pablo Sanpedro Landazabal (1929)



Zaldibarren jaio zen eta bertako alkatea izan zen hamabi urtez. Aita ere Zaldibarkoa zuen eta ama Durangokoa. Bost anai-arrebatatik laugarrena da eta lau seme-alabaren aita. Alkate sasoiko kontuak kontatu zizkigun berarekin egon ginenean (eskolak eraiki zituztenekoa, ura ekartzeko bidea hobetu zutenekoa...) eta baita gerra sasoian Kataluniara erbesteratu zirenekoa, besteak beste.

Elena Sarraua Amutxastegi (1929-2014)



Goierrri auzoko Luzar baserrian jaio, hazi eta bizi izan da. Aita zuen bertakoa eta ama Mallabikoa. Bost neba-arrebatatik hirugarrena eta alaba bakarra izan zen; ondorioz, berak egin behar izan zituen amagaz etxeko behar gehienak. Bere neba [Jose Luis](#)egaz batera egin genion elkarrizketa. Baserriko beharretaz gain, beste neba baten harategian egindako beharretaz ere aritu zen berbetan.

Jose Luis Sarraua Amutxastegi (1933-2017)



Goierrri auzoko Luzar baserrian jaio, hazi eta bizi izan da. Aita zuen bertakoa eta ama Mallabikoa. Bost neba-arrebatatik gazteena izan zen. Bere arreba [Elenagaz](#) batera egin genion elkarrizketan Elizaren indarraz, eskola garaiaz, umetako jolasez, gerra garaiaz... aritu ginen, besteak beste.

Jose Zalduegi Uriarte (1933)

Zaldibarren jaio zen Zalduegi izeneko baserrian. Aita zen jaiotetxekoa eta ama Mallabikoa. Baserriko semea izan da Jose, bertan lan asko egindakoa. Hala ere, ehizarako zaletasun handia eduki zuen gaztetan. [Juan Lasuen](#) lagunarekin batera egin genion elkarrizketa eta baserriko kontuak kontatu zizkiguten; hala nola, ehizaren ingurukoak, gaztezaroko jolasak, gerrako kontuak eta jaietako ohiturak, besteak beste. Argazkian eskerreko aldean agertzen dena da Jose.

Jon Ander Zurikarai Atxa-Orbea (1933)



Goierrri auzoko Goikoetxen jaio eta hazi zen, amaren jaiotetxe berean. Umetatik hasi zen baserriko beharretan idi-uztarria lagun zuela eta horixe izan zuen gero ere bizibide. Hamahiru urtegaz hasi zen Eibarrera esnea saltzen eta erretiratu arte aritu zen horrexetan.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Maisurik onena, Elorriokoa

- **Hizlaria(k):** Zurikarai Atxa-Orbea, Jon Ander

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: ZAL-008/002
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:01:08. **Bukatu**: 00:03:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Eskolan dena egiten zuten erdaraz. Sarri aldatzen zuten maisuz, horregatik ez zuten ganoraz ezer ikasten. Ikasi zuten apurra Elorriko maisuarekin egin zuten, hark euskarara itzultzen baitzizkien eskolako gaiak. Neskak eta mutilak banatuta zeuden eskolan.

Transkripzioa

-Eskolara hasi gintzezenien, zazpi urtaz, ez euen... honetako itten oskuen ipiñi ta /ipiñi tte/ kantau erderaz, bestela beste guztie be erderaz. Maisu bat sekule ez gendun ganoraz eukitten, ze danak izeten zin interiñuek, osea... plaziaz bapez. Gure denporan plaziaz bapez, ez euen aukeraik. Handik gerotxua hasi zien. Eskola bi euezan, bata, oin be [hantxe daz e?] eurek, baiña gero anpliatu, oin diferente da. Baiñe, harek eskolak blokiek iguel daz. Entradan, Zaldibarko [Zaldiberko] entradan, lehelengue neskena, bestie mutillena. Batak maistrak eukitten eban ta bestiek maisuek. Baiña maisuek geur be bai, ta iguel hamabost egunera /eguna/ atzea bestea, kanbixetan egoten zin. [...] juergan eitteko bakar-bakarrik. Guk asko ikesteko... Lehelengo bat o bi etorri zien, Elorrioko [Elorrixoko] seme bat, [...] be etorri zen maisu majua. Haitxek erakutsi oskun... nik ikesi nebana haitxegaz ikesi neban.

-Ta Elorriokoa [Elorrixokoa]?

-Elorriokoa [Elorrixokue]. [Arroittibe] baserrikue.

-Euskeldune.

-Euskeldune, euskeldun-euskeldune. Ta harek baekixen gu ze... ze falta... ze falta genduen, ze ez genduen ulertzen esaten ebena. Ta harek traduzidu eitten oskun, ezkutuen baiñe traduzidu sarriten. Gizon ona, baiñe [...] posiblieu bera sentitzeko, [...]. Bai, bestelan maisue ta buf!

-Eskolie ze egon zan, oin dauen leku berien?

-Bai, oin anpliaute daz gehixa asko. Baiñe bertan. Lehelengo, hametik Zaldibarrera [Zaldiberrera] zoiezela, eskumerakue ta bigarrena, neskena entradie zan, entradan dauena, lehenengo dauena bidien kontran; ta bigarrena, zera mutillena, eskumakue. Horrixek, besterik ez euen han. Ta nere denpora guztien bez.

1.2. Arropak eta zapatilak zuritzen

- **Hizlaria(k)**: Sarraua Amutxastegi, Elena; Sarraua Amutxastegi, Jose Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: ZAL-010/004
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:06:27. **Bukatu**: 00:08:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena**: Pastilla batzuk erabiltzen zituzten domeketako zapatilak zuritzeko. Arropa zuriari, osteria, anila botatzen zioten. Euren ume sasoian, amak sosazko bola moduko batzuekin egiten zuen lixiba.

Transkripzioa

-Jose Luis: Orduen gaiñera, ya danien esateko, danien esango neunke zala zapatilla zurixe erueten zan. Zapatillie, zurixe. Da egoten zien holangoxe pastilla batzuek, ta haregaz ra-ra-ra ta jo ta domekarako zuri-zuri eiñdde, ta jolin!

-Elena: Elegante.

-Jose Luis: Bai.

-Elena: Hoixe zan, gure bizimodue /bizimorue/.

-Jose Luis: Ta erropa zurixei eitten jakona /eitteakona/, añille. Badakixu, entzun dozu sekule?

-Elkarrizketatzailea: Bai, entzutez bai.

-Elena: Entzun bai, ikusi ez dozu sekule ein?

-Jose Luis: Harek beste toke bat emoten dotsa /emoteotsa/. Bai.

-Elena: Oin jaboiek dakar.

-Jose Luis: Bai ba, baiña orduen? Aparte. Aiñtxiñeko geuzak.

-Elkarrizketatzailea: Ta lejia edo ez zan e... lixibie edo?

-Elena: Bai, lixibiek... bai, orduen lixibie eitten zanien... gero ez zan /etzan/ eitten baiña lixibie izaten zan holako ontzi biribil bat.

-Jose Luis: Ontzi haundixe e?

-Elena: Gurien hor kanpuen egoten zan. Ta han ez dakit ba, jaboie emonda sartzen zittuen ala ez dakit zelan... ipintten zittuen ta sosak edo...

-Jose Luis: Lejia bolak edo ez baziren.

-Elena: Lejia bolak edo sosak.

-Jose Luis: Lejie be bolak egoten zien, geuza batzuetarako.

-Elena: Gu umiek gintzezan, baiñe ni akordetan naz amak... gure amak ur berue botaten otsan gaiñetik noizek behiñien /nozepiñien/.

-Jose Luis: lixibie...

-Elkarrizketatzailea: Ta surteko hautse?

-Jose Luis: Suteko hautse be entzutie badekot.

-Elena: Baiñe ni ez naz akordetan.

-Jose Luis: Entzutie bai.

-Elena: Zuk entzun dozu itxurie.

-Elkarrizketatzailea: Bai.

-Jose Luis: Bai ta /bai tte/ sartzen ostezela ereuntse.

-Elena: Erauntse edo, bai pixkat.

-Jose Luis: Ereuntse be bai.

-Elkarrizketatzailea: Usiñie?

-Jose Luis: Bai. Ba orduen ez egoen besterik eta hori.

-Elena: Bakotxak bere inbentuek.

1.3. Familia Gabonetan batzen zen

- **Hizlaria(k):** Aiarzaguena Aranzibia, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa
- **Erref:** ZAL-012/004
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:06:03. **Bukatu:** 00:07:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Osaba askotan gaixotzen zen eta sarritan euren etxean egoten ziren izeko-osabak eta lehengusina. Gabonetan afaltzeko batzen

zen familia, eta batzuek bertan egiten zuten lo. Normalean, ume bik elkarrekin egiten zuten lo, ohe berean.

Transkripzioa

-Lehen egoten ziren igual etxean be bai izeko ta osaba, igual solteruek eta holan?

-Bueno, nik ez dot ezautu izeko-osaba solteruik, baiña osaba bat asko egoten zan gaixoik eta andra-gixonak eta umie sarri egoten zien, lehengosiñe, ama zan hangue, nere amen aitzie ta... sarri, eitten ebezan tenporadak, etxien.

-Gizona gaixorik egonda... klaro.

-Bai, bai.

-Eta familie lehen noz batzen zan? Gabonetan eta oingo moduen? Diñot familia handie e?

-Bai, bai, bai. Beti. Bai, beti batzen gintzezan.

-Gabonetan? Ze egunetan? Gabonetako ze egunetan?

-Ba iguel bixetan be e?

-A bai? Baia geubean edo bazkalduteko?

-Ez, gabien. Baiñe, klaro, hori zan gu txikixek gintzezenien, orduko izeko-osabakin. Ya gu hasi gintzezenien ez.

-Ta non bizi ziren eurik ba? Nondik etorten ziren?

-Ba Zaldiberren, Eiberren, bai.

-Eta gero lo etzean? Zuon etzean?

-Ba batzuk bai ta /tte/ beste batzuk ez.

-Ta zelan konponduten zintzien ba hainbeste jente!

-Ba beittu, umiek sartzen gintzezan amamen gelan, ohien alde batera ta bestea, ta amamaz beste hiru bat eta han umiek. Ta beste hiru gela euezan...

-A bueno, behintzet... ezta? Ta umeak eiten zenduen lo alkarregaz normalean?

-Normalien bai. Bi beti jeneralien alkarraz.

-Ta bakotxak bere ohian edo biok ohi baten?

-Ez, ez. Bi baten ta beste bat beste baten. Mutillek beste baten beti, beste gela baten.

-Eta neskak alkarregaz ezta?

-Bai. Oge biko gela bat, baten... ohe baten bi ta bestien bat.

1.4. Zaldibarko ermitak eta bertako jaiak

- **Hizlaria(k)**: Irulegi Uribarri, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: ZAL-018/018
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:32:22. **Bukatu**: 00:34:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Ermitetan ere jaiak ospatzen zituzten: Santa Marina, Santiago, San Martin, San Lorenzo eta San Migel. San Migel ermitako auzoa elizaz Zaldibar da eta udaletxez Berriz. San Migelen eta herriko jaietan, odolosteak egiten dituzte gero jendeari banatzeko. Auzoetako jaietan, meza entzutera joaten ziren eta gero ardo zuria eta gailetak

hartzen zituzten. Ostean, danbolinderoek jotzen zuten eta iluntzean erromeria egiten zuten.

Transkripzioa

- Eta gero hori herriko jaiek, ezta?
- Bai.
- Eta gero auzoetako jaiek, barrioetako jaiek egiten ziren?
- Bai.
- Ta zenbat barrio daude ba?
- Hamen zenbat, ba...
- Gitxi gorabehera, e.
- Bai, Goierri, Santamarina, zera... bueno, Goierri, Santa Marina da zera, ermittie. Gero, Santiago hantxe goixen, San Martin behien, San Lorenzo eta gero beste bat San Miguel. Osea elizie toketen jako Zaldibarrei ta, ostantzien, ayuntamientue Berrizera.
- Ointxe be holan da?
- Bai, bai.
- Ta zure sasoi be bai holan izen da?
- Bai, bai, hori beti holan. Eta bezperan hor eitten dabe bezperan odolostiek. Ta herriko jaixetan be odolostiek eitten dittue bezperan, bezperan, jaixek hasten dienien.
- Baia zer, jenteari emoteko edo?
- Bai, bai. Bueno, ermittan pagau in biher da, San Miguelen, baiñe herrixen ez. Emoten dittue pintxotxuek. Kostunbrie...
- Ta beti egon da kostunbre hori?
- Bai, behintzet urte askuen bai. Urte askuen bai.
- Ta nok iten dauz?
- Ba... presteten dienak, hantxe preparaten...
- Herriko jentia?
- Bai, herriko jentie bai, herriko jentie.
- Eta holan barrioetako jaietan-eta ze iten zan? ermitan meza...?
- Lehen ermitan mezie ta gero emoten eben ardauriz, gailletak edo zeozer emon. Tabernie, bertan ez baueuen tabernie, ipini eitten zan. Ta hoixe... Tanboliñero jotzen eben ta gero iluntzien erromerixie. Hoixe izaten zan.
- Ta egoten ziñien, ezta?
- Bai.

1.5. San Juan bezperan sua egin eta abestu

- **Hizlaria(k):** Irulegi Uribarri, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa
- **Erref:** ZAL-018/049
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 01:25:24. **Bukatu:** 01:27:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Kantak
 - Aisia » Jai-giroa » San Juan
- **Laburpena:** San Juan bezperan sua egiten dute. Aurreko urtean bedeinkatutako lore sorta ('sorbie') erretzen dute eta "San Juen, San Juen, arrautze bi kolkuen" kantatzen dute. San Juan egunean lizarra jartzen dute ateetan loreekin apainduta.

Transkripzioa

- Ta San Juanak? Zelebrau izen dozuez?
- Sua?
- Bai, San Juan sue ta...
- Oin be bai.
- Oin be bai iten dozue?
- Jueten ga zerera, basarri... bueno, basarridxe edo lehengo... lehen bizi giñen etxera, ta urtero eitten dou.
- Ta len be eitten zan?
- Bai. Guk lehen... Lehen etxe guztietan. Sue etxe guztietan.
- Baia bezperan, ezta?
- Bezperan, bezperan.
- San Juan sue eiten zan?
- Bai.
- Eta zer erretan zan hor?
- Ba hor erreten zan, lehen eruten genduen, San Juan egunien eruten zan, lorak, sorbie esaten jakon, "ramo", sorbie esaten jakon /esateakon/. Ta eruten zan elizara. Ta bedinkatu-ta eitten eben ta ha gordete zan ta ha botaten zan sutara.
- Hurrengo urtean?
- Hurrengo urtien. Ta guk eitten dou, oseake, San Juan egunien ipintten die arramak zerien, atien. Ez dakit zelan esaten jakon erderaz... lixarra. Arramak ta lora batzukin ipintte jakoz atien. Guk zerien, oseake, bueno, basarrixen lehen bizi giñen lekuen ondiñok hantxe daz siku-sikuek. San Juan egunien hartu te botako dittut. Nik hona be ekarten dittut ta hamen be ipintten dittut. Ta hamen siketzen dienien, gorde plastiko baten ta hara basarrire eruen, lehen bizi giñen etxera. Ta lehen etorten zan... osea, hiru seme-alaba ta seme nausixe bizi da Zaldibarren ta... hau hemen ta beste bat lurretan. Ta lehen lurretakue be etorten zan umiekin-ta, baiñe oin umiek hazi dienien, ba, lagunekin-ta han eitten dabe, ezta? Baiñe seme nausixe ta gu danok jueten ga. Sue ein, kantau...
- Ze kantetan da?
- "San Juen, San Juen
arrautza bi kolkuen
beste bi altzuen
sorgiñek eta lapurrek erre, erre
artuek ta garixek gorde, gorde
biba San Juen".
Hoixe.
- Oso politte.
- Ta danak kantuen hantxe.
- Ta saltau eiten da?
- Bai, saltau... nere seme nausixek salto eitten dau. Salto eitten dau.
- Eta etxe guztietan? Egon da kostunbrea etxe guztietan eiteko?
- Oin ez etxe guztietan.
- Baia lehen bai?
- Lehen bai. Baiñe oin daz etxiek urtero eitten dabenak be bai. Ta lehen herrixen be eitten zan. Ta oin herrixen ez dabe eitten.

2. Politika

2.1. Hoditerian babestu hegazkinen bonbetatik

- **Hizlaria(k):** Zurikarai Atxa-Orbea, Jon Ander
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** ZAL-008/006
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:08:41. **Bukatu:** 00:10:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Errepublikara garaiak jaio zirenean asko daukate izena euskaraz. Hala ere, gerra sasoiak gauzak asko aldatu zituen. Aita, esaterako, trintxerak egiten ibili zen Galdamiñon. Ama eta seme-alabak, osteratzen, bide azpiko hoderian ezkutatzen zirenean hegazkinen bonbetatik babesteko. Ihesi zihoran Eibarko jendea hartu behar izaten zuten baserrietan.

Transkripzioa

-Ta hemen zure sasokoak, Errepublikan jaionikoek asko dauz euskerako izena dekenak?

-Bai, bai, bai, mordua. Bai, bai, bai, mordua. Bai bai, ta nik esan dotsut / esaotsut/, hortixik [...] ta ezebe, beste batzuk be halantxe ein eben ta akabo. Deskudietan bazan, egurre eguen ta gerra denporan ez dotsut ezebe esango... Geuk ikusi ginduzen bakarrik be, gu mutiko txikiek, gu mutiko [...] ta guresuek ta abioen zatietan entzuten ebenian... aitte trintxerak eitten Kaldamiñotik, Eibartik ordu beteko bidie /birie/ goixen mendixen, Elgeta onduen e? Kaldamiñon. Trintxerak eitten, gizonak kanpuen ondio. Ta amak eta umie eskuetatik hartu ta ailegetan ta karreteriek azpizen dekozan kañerixak... haratxe eskutetan, protejitzeko zozet. Etxiai edozet [...] ta. Edo /ero/ kanpoko jentietan be orduen, gerra denporan, Eibarkuek eta jentietan be baserrietan hartu, nonbeitten hartu biher ba! Persona onak e? persona onak, Jesus! Jente ona eon zan bai. Beste aldiarentzat txarrak be asko baie...

-Ba zuk gerrako akordurik ez dozu eukiko ba. Gerrako akordurik ez dozu eukiko.

-Entzune gehixa, ekusitte ba guk... in oskuezan /iñoskuezan/... umetakuek. Umetako geuzak. Mille ta bederatzireun ta hegita hamaurigarren urtekue naz ta. "Enero del año treinta y tres", mutiko txikixe.

3. Familia eta harremanak

3.1. Geletako ohola hareatu

- **Hizlaria(k):** Sarraua Amutxastegi, Elena; Sarraua Amutxastegi, Jose Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** ZAL-010/005
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:08:19. **Bukatu:** 00:09:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

- **Laburpena:** Geletan, ohola edukitzen zuten behegainean. Noizean behin, hareatu egiten zuten, harearekin igurtzi.

Transkripzioa

-Jose Luis: Ta, kuartuetan behien ohola. Ta harek nozien behin, arenau esaten jakon /esateakon/. Uretan bustitte?

-Elena: Ez, uretan busti barik.

-Jose Luis: ba horixe ba. Baiña harie, hariaz, ra-ra-ra, dana, dana, dana paseu. Ta gero gaiñetik barriro kentzen zittun harek hare hondarrak eta hare guztiek eta ohola geratzen ziren... zuri-zuri geratzen ziren. Kuartuetako beheko oholak. Ya ahaztu eitten die...

-Elkarrizketatzailea: Danak belauniko gaiñera.

-Jose Luis: Buf! Hoixe! Belauniko. Buf! Hoixe belauniko.

-Elkarrizketatzailea: Fregonarik eta...

-Elena: Bai! Fregonie...

-Jose Luis: Ez, ez. Zemat urtekue da fregonie ba?

-Elena: Gu zahartute [...]

-Jose Luis: Bai... Hoixe. Lehen belauniko plantaute. Eskuek be gastau biherrien.

-Elkarrizketatzailea: Hori be nok eitten eban?

-Jose Luis: Hori? Amak. Askotan behintzet. Nik halan ezautu neban, ama.

-Elena: Behiek eitten? Neuk be bai. Baten baiño gehixautan.

-Jose Luis: Baiñe... buf!

-Elena: Orduen eitten zan, halantxik in biher zan /in bizan/ ta.

3.2. Aita pistolak egiten Frantzian

- **Hizlaria(k):** Askasibar Sagastigutxia, Zipriano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhua
- **Erref:** ZAL-016/002
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:01:55. **Bukatu:** 00:03:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- **Laburpena:** Gurasoak Frantziara joan ziren ezkondu berritan, aita pistolak egiten zituen bertan eta. Bueltau zirenean, aita Eizagako zentral elektrikoan hasi zen lanean. Gero, torlojuak egiteko tailerra jarri zuen.

Transkripzioa

-Eta zer dala ta joan ziren ba Zaldibarrera zure gurasoak?

-Ba... gure aitta ezkondu zan inguruan zerera joan zan, hau e... Elgetatik armas... pistolak eitten zittuen ta Franziera joan zan. Ta Frantzian ba... han e... aittek lana ta eitten eban ta ama be... baiña aspertu ein zan ta atzera ama bueltau ein zan, atzera Elgetara etorri zan. Ta gero luzera be, ba aitta be... urte bat edo bi ingo zittuen baiña ha be bueltau in zan. Ta gero ba ortxe zentralera sartu zan.

-Osea, behar kontuegaitik edo ezta? Beharra dala ta edo...

-Amai ez jakon [etxakon] gustatzen Franziaiko anbientia.

-Ya, ta orduen buelteak.

-Ta gero bueltau in zan. Ta gero aitta be ba... han bakarrik zerian ba, ha be aspetu zan ta atzera buelta. Ta orduantxe hona zentralera etorri zien.

-Ta Frantzian non? Ze lekuten? Ez dakizu? Diñot goien, Iparraldean edo...
 -Ez, ez San Juan... frontera inguruan egon zan nonbait, frontera inguruan.
 -Ta han armak eta eiten?
 -Bai. Pistolekin Elgetatik joan zan Franzia. Ta oin hori enpresia... segitzen dau. Bai. Segitzen dau.
 -Osea, enpresa bat dau han dediketan dana horretan?
 -Bai, bai. Horretan denporan pistolak eitten zien han.
 -Ta hondiño badao e?
 -Baietz usten dot, hondiño be badaoela.
 -Joe. Ta orduen gero zentrolean... zein zan zure aiten beharra?
 -Ba itten eban /itxeban/ zera... Makiña zaindudu ta gero ba tornilluak ba ipiñi eban ba tornilluak eitten.
 -A, gero ipini euen tornilloena.
 -Bai, han zentrala zainduz, ba tornilloak eitten zittuen. Bai...

3.3. Batzen zuten fruta apurra etxerako zen

- **Hizlaria(k):** Narbaiza Aranguren, Eugenia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa
- **Erref:** ZAL-017/006
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:10:44. **Bukatu:** 00:12:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
 Baserrria » Baserriko lanak » Baratztea eta soroa
 Baserrria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena:** Etxe bete jende bizi ziren baserrian: neba-arrebak, gurasoak eta aitita. Fruta ere eduki zuten etxean, melokotoiak, okaranak eta sagarrak. Etxerako izaten ziren, postrerako sagar-errea edo konpota jateko. Madari gutxi zuten.

Transkripzioa

-Beratzi neba-arreba ta aitte ta ama, ta aittitte.
 -Aitite be etxean?
 -Bai, aittitte be etxien, aittitte bai.
 -Jente asko.
 -Bai, jente asko egongo zan.
 -Bizimodu bakarreko etxea zan?
 -Bai.
 -Bat ezta?
 -Bai.
 -Eta, ez dakit, frutarik eta eukiten zenduen etxean?
 -Frutie bai. Melokotoiek eta okanak, bai.
 -Ta sagarrak?
 -Sagarrak gutxi. Bueno, sagarrak bai. Gutxi esan dot, baiñe sagarrak sasoi baten, han goixen, Luerrixen geunkezan eta ba, sagarrak bai. Sasoi baten sagarrak bastante.
 -Ta sagarrak etzerako?
 -Etxerako.
 -Edo saltzeko ez?
 -Saltzeko, saltzeko gutxi ze sagarrak ba, tratau ezin edo zertu ezik ez dabe fruto... zer asko emoten. Bai, onenak eruten zittuen iguel... batzuk plazara baiñe... etxien be hainbeste gengoan ba postrie be izeten zan sagar-errie

edo. Sagar-errie edo konpotie edo.
-Eta madariek ez dozuez eukin?
-Madariek... bi edo hiru geunkezan bakarrik, edo zera. Ze zelan zera zan, aldapie haundixe edo zera... sikua... han ez zan frutie asko hasten ta txikixe gelditzen zan.
-Ez zan eiten ondo...
-Bai...

3.4. Auzoek asko laguntzen zioten elkarri

- **Hizlaria(k)**: Narbaiza Aranguren, Eugenia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: ZAL-017/007
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:12:34. **Bukatu**: 00:14:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- **Laburpena**: Auzoko batzuek sagardoa eta txakolina egiten zuten. Sagarrak falta izanez gero eurek ere ematen zizkieten. Lehen asko laguntzen zioten elkarri, garia jotzen esaterako, edo belarra batzen.

Transkripzioa

-Sagarragaz eiten zinduen sagardaua?
-Sagardaua ez... etxien ez gendun sagardaurik eitten, ez geunken erreminttaik sagardurik eitteko.
-Ba, jenteak bai ezta? Jenteak, inguruko jenteak eingo euen.
-Bai, han auzuen baserri bittien eitten eben sagardaua /sardaua/. Auzuen bertan. Sagardaua /sardaua/ ta txakoliñe be bai eitten eben, auzuen bertan. Ba sagarrak iguel e.... edo zerak, sagarrak falta baeben barrikie hornitzeko ta zerok eta, ba...
-Lagundu ezta?
-Bai. Ze lehen dana ixeten zan bata besteai lagundute.
-Asko?
-Asko.
-Zelango gauzak eiten ba? Por ejemplo, zelango gauzak eiten laguntzen zan?
-Gari-joten, gari sasoién gari-joten ta bederra... bederra ebaitte baeguen ta bederra siketute ta trumoi jotén baeban, ta juten ziñen aiiñeketan laguntzen erretiretako.
-Eta igual etxea konpondu behar zanean edo... holango geuzek?
-Etxie konpondu gendunien ba... ba teillatue barrixe ipiñi otsen ta... nere gixonak eta beste aizta baten gixonak eta nere aittek eta euren artien, nebak eta aittek eta...
-Familiek.
-Bai. Etxekuen artien.

3.5. Inguruko herrietako jaiak

- **Hizlaria(k)**: Irulegi Uribarri, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa

- **Erref:** ZAL-018/019
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:34:06. **Bukatu:** 00:36:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- **Laburpena:** Inguruko herrietako jaietara ere joaten ziren gaztetan: Mallabira, Berrizera, Abadiñora, Eibarrera eta Durangora. Inoiz oinez ere joan izan dira Urkiolara San Antonio egunean.

Transkripzioa

- Ta beste herri batzutara be bai jaietara?
- Bai.
- Nora?
- Nora? Ba, juten giñen Mallabire, Berrizera, ta Abadiñora ta gero, ba, zera, ya horrek herrix... zera, San juanetan Eibarrera gutxi ta San Antoniuetan Durangora, ze oin San Antoniuetan... Osea, Urkiola da Abadiño, baiñe lehen Durangon eitten zan erromerixie, Durangon eitten zan, ta oin Durangon ez da ezer egoten San Antoniuetan.
- Ez, e? Oin Durangon San Fausto. Ezta?
- Bai, San Faustuak. Baiñe gure denporan San Faustoik ez zan eitten.
- San Antonio zan?
- San Antonio zan.
- Eta horretan egunorretan ez ziñien joaten Urkiolara?
- Batzutan bai, beti ez, batzutan bai. Bueno, egunien edo hurrengo domekan edo... bai, Urkiolara bai.
- Baia oiñez?
- Zelan?
- Urkiolara oiñez hemendik?
- Oiñezien? "Andando"? Oiñez? Baten, baten.
- Eta? luze? Bide luzea?
- Luzie. Luzie, baiña bueno.
- Baia egon zan ohiturea, ezta, jentea joateko, kostunbrea egon zan, ezta?
- Bai, bai, asko, asko. Gurera etorten zan nere aitten lehengosu bat, baiñe urte askuen, Hernanittik. Urte askuen.
- Gero Urkiolara joateko?
- Bai, bai. Bezperan etorri gure etxera, gure etxien lo ein, ta aittaz ta amazta Urkiolara jueten zien. Urte askuen.
- Eta hemendik igual ez zarie joan Begoñara oiñez, Bilbora?
- Hemendik?
- Ez, ezta? Hori igual apur bat urrin dau, ezta? Bakarrik holan Urkiolara? Ez da/ezta/ egon beste lekuri holan...? ez, ezta? Oiñez holan joateko, Urkiolara.
- Bueno, oiñez juteko, ba, ez dakit batzuk bai, ba, batzuk mendire-ta jueten die. Hori bai, baiñe...
- Bueno bai, baia esan gure dot santuagana ta...
- A, ez.
- Ta ez ziren eiten promesak eta holango gauzek, santueri promesak eta...?
- Bai, baiñe... holan... batenbatek eingo eban, baiñe holan ikustekoik ba ez, nere denporan ez.
- Urkiolan egoten zan erromeria eta...?
- Bai, bai, bai, egun guztien egoten zan.
- Holango... jaie, ezta?
- Bai, bai.
- Eta Durangon be bai, ezta?
- Durangon be bai.

- Ta Durangora be joango ziñien, ezta?
- Klaro.
- Durangora beti.
- Bai.
- Ganera trenean, ondo.
- Bai.
- Bai.

4. Lanbideak

4.1. Aitak eskopeten piezak egiten zituen

- **Hizlaria(k):** Aiarzaguena Aranzibia, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa
- **Erref:** ZAL-012/003
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:04:30. **Bukatu:** 00:06:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Beste batzuk
- **Laburpena:** Aitak eskopeten baskulak eta kanoiak egiten zituen, etxean bertan zeukan tailerrean. Eibarko enpresa batentzat egiten zituen. Zaldibarren ere eskopetak egiteko fabrika egon da.

Transkripzioa

-Etxean orduen jente asko egoten zan ezta? Igual aitite-amamak...

-Bai, guk amama euki genduen, aittitte ez genduen ezautu. Ta beti eukitten genduen gaiñera biherrien baserrixen mutil bat, beti, ba ha be etxeko moduen.

-Etxean lo eiten euen eta dana?

-Dana, dana.

-Ta bazkaldu ta dana?

-Dana. Aittek zerien eitten eban, eskopetan eitten eban lana, bertan etxien, han eurreko txabolan euen ipinitte lekue, ta...

-Ta zer eiten euen, eskopetak eiten euzen?

-Eitten ebazen zerak... kañoiek eta eskopetien marku... zelan esaten da? Burue, eskopetien buruen, beste izen bat deko. Ez naz gogoratzen momentuen. Baskulie! Baskulie eta kañoie.

-Eta gero saldu?

-Ez, gero... Bai. Hori eitten eban Eiberko empresa bati. Eiberko enpresie gero... montau ein eskopetak eta harek saltzen ebezan.

-Zaldibarren be ez da egon holango empresa bat edo?

-Bai, bai, bai. Baiñe hori ixen da oin, ointsu. Bueno, oin dala /oiñddala/ zemat urte montauko eben? Iguel hogeta hamabost edo berrogei... bai, egon da.

-Oseake, zure aite ta...

-Eiberrera beti. Hillen azkenien jutun zien, in ebezenak hillien eruten ebezan ta...

-Gero etxean ein ezta?

-Bai.

-Beitu ba ondo. Ta gero pagau ingo otsien.

-Bai, klaro.

-Horretarako zan ezta?

-Moko truk ez!

4.2. Denda asko Zaldibarren

- **Hizlaria(k)**: Irulegi Uribarri, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: ZAL-018/011
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:17:29. **Bukatu**: 00:19:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Sasoi batean errazionamendua egon zen dendetan. Denda asko egon zen Zaldibarren, plazan bertan lau. Arropa denda bat ere egon zen herrian eta mertzeriak. Hala ere, askotan irteten ziren Durangora, Eibarrera edo Bilbora arropak-eta erostera.

Transkripzioa

- Lehen dendara-edo joaten zintzien? zeozer erosten bai, ezta?
- Bai, klaro, klaro. Ganera, lehen izeten zan razionamentue; emoten eben / emoteben/, ba, ez dakit, pertsona batendako ba honenbeste zer, azukrie, olixue, holakotxe gauzak.
- Eta zer gitxi izeten zien? kantidade gitxi edo?
- Ba ez dakit, ez naz akordetan, baiña haren ganera, ba, gero erosi, gero erosi.
- Halan, kartilla bategaz edo zelan zan hori, razionamentua?
- Razionamentue kartilliaz, ya ahaztuta dekat kartillian zera. Kartilliaz.
- Ta denda asko egon zan hemen Zaldibarren?
- Bai, lehen bastante, oin ez. Lehen bastante. Ba plazan be hiru egon zien. Plazan, ba, txikixe da, hiru egon zien. Oin bat da bakarrik. Hiru? lau, lau. Ta gero, klaro, gero etxiek-eta gehixa ein zittuezan, ez?baiñe gero itxi ta batzuk jubilau ta... ba...
- Ta holan erropa dendak edo telea edo...?
- Erropa dendak bat bakarrik akordaten naz, bat bakarrik, ya neu nausixa nitzela egon zan. Ostantzien, zerak bai merzerixak bai, eta oin be bada bat, baiñe hamen ezer biher bada, zapatilla batzuk biher badie urten ein biher da.
- Nora urten behar da?
- Ba Durango, Eibar... horixe.
- Ta lehen urteten zinduen Zaldibarretik?
- Bai.
- Nora?
- Bueno, holan erosketak eitten, ba, ni Bilbora asko juen naz; lehen erropak-eta erosten bai, Bilbora, Eibarrera, Durangora...
- Ba Bilbo urruntxu dau, ezta?
- Bai, baiñe...
- Ta zelan joaten ziñien?
- Trenien.
- Trena beti egon da hemen?
- Bai, trena beti, trena beti ezautu dot. Ta oin, bueno, oin konbinaziño ona da, oin autobusek daz ordutik ordure, trena be bai...
- Ta lehen autobusik ez?
- Ez.
- Ta Bilbora, jo, tardeuko zenduen, ezta?
- E?
- Tardeuko zenduen Bilbora, ezta?
- A, ez dak... ba hemendik ordubete-edo da, Bilbora, ordubete.

- Ta Bilbora zetan joaten ziñien? Gauzek erosten?
- Honbre, ba, edo jaixen baten be bai, e? Jaixetan be bai, baiñe asko ez, e.
Baiñe zer soiñeko edo erropan bat erosi biher zanien, ba, haratxe.

4.3. Produktuak trenez almazenetatik dendetara

- **Hizlaria(k):** Garitaonandia Gisasola, Jose Mari; Lasuen Solozabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa
- **Erref:** ZAL-022/001
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:02:59. **Bukatu:** 00:04:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Eliza ondoan lau denda egon ziren. Denetariko gauzak saltzen zituzten bertan; jatekoak, edatekoak zein arropak. Produktuak trenez ekartzen zituzten almazenetatik eta gurdiz banatzen zituzten herriko dendetara.

Transkripzioa

-Elkarrizketatzailea: Oseake hau dana, antzera ez orduen?
-Juan: Bardin bardin.
-Jose Mari: Bai, bai, bai, bardin.
-Elkarrizketatzailea: Eta negozioak eta holan? Dendak eta...
-Juan: Ba dendak eguezan lehen, hor e... alimentaziñokuek ta dana saltzen ebenak lau.
-Elkarrizketatzailea: Lau?
-Juan: Honen amak euken bat. Nere amak beste bat. Ta beste bi. Hamen eguezan, hor bat ta hamen beste bat, ta hamen gure dendie ta beste aldien beste bat. Lau eguezan bakarrik.
-Elkarrizketatzailea: Ta orduko dendatan zelango geuzek egoten ziren ba?
-Jose Mari: Danera, danera. Danetik, ba karo, danetik egoten zien.
-Elkarrizketatzailea: Danetik? Baia jatekoak bakarrik?
-Juan: Ez, ez. Jatekuek, abarketak eta erropak eta...
-Jose Mari: dana, dana.
-Juan: Lapikuek. Danetik egoten zan.
-Elkarrizketatzailea: Osea, etxerako katxarroak ta holan be bai?
-Juan: Bai, bai, dana. Ta likorrak... danetik.
-Elkarrizketatzailea: ardaua be bai?
-Biek: bai, bai.
-Elkarrizketatzailea: Ta horrek geuzek nondik ekarten ziren ba?
-Juan: Almazenak eguezen.
-Jose Mari: Bai, almazenak eguezen orduen.
-Elkarrizketatzailea: Non?
-Jose Mari: Bai e.. Durangon ta Bilbon be bai...
-Juan: Durangon be bai, Bilbon be bai, ta Eiberren be bai.
-Elkarrizketatzailea: Ta zuek nondik ekarten zenduen?
-Juan: Ba hortik ba, gehixena Bilbotik.
-Elkarrizketatzailea: Gehiena Bilbotik? Ta zelan? Baten batek ekarten otsuen edo...
-Juan: Ez, trenien etorten zan dana.
-Elkarrizketatzailea: Zuek joanda? Ta trenean ekarri?
-Juan: Ez, pedidue ein ta /eiñ dde/ trenien bialdu eitten eben.
-Elkarrizketatzailea: Ta zer egoten zan, trena holan... kargetako... egongo

zan kargak...

-Jose Mari: Bai, ta gero errepartidora eguen.

-Juan: Klaro, merkanzie egon zan. On daz trenak bakarrik ezta? Orduen eoten zien ba egunien lau edo /ero/ merkanziak bakarrik, bagoie. Bago zerrauetan... Iguel hamar edo hamabost bagoi ekartzen ebazen, danak fabriketara ta...

-Jose Mari: Bai, gero ['Iturre'] egoten zoan repartitzeko herri barruen.

-Juan: Gero bertan eoten zan bat ba karruaz ta repartidu eitten...

-Jose Mari: Karo, repartitzen ebana.

-Elkarrizketatzailea: Karroagaz?

-Jose Mari: Bai, bai karroaz.

5. Aisia

5.1. Auzoko jaietan familia bazkaltzen etxera

- **Hizlaria(k):** Aiarzaguena Aranzibia, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa
- **Erref:** ZAL-012/005
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:07:42. **Bukatu:** 00:09:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Urizarren San Lorentzo ospatzen da eta beheko ermitan San Martin. Egun horietan familia etortzen zen etxera bazkaltzera. Paella gozoa prestatzen zuen amak, oilaskoa eta etxean egindako natillak eta arroz-esnea. Edateko ardoa edukitzen zuten, baina gizonek egunero edaten zuten.

Transkripzioa

-Eta herriko jaietan eta etorten ziren be bai familikoak bazkalduten eta holan?

-Bai, bai, bai. Hori beti egon da ohitturie. Hamen goixen Uxarretan San Lorenzo, ta hori astegune ixeten zan ta hor be... ni ume nintzenien beti e? San Lorenzon, gero San Martin da hor behien beste ermintta bat ta San Martiñetan be etorten zien, bai.

-Ta ze bazkari prepartetan zan holan egun espezialetan? Lehen e?

-Bueno, ba lehenengo eitten zan paella gozo bat. Gure amak gaiñera katilluaz etaten ebazen horrek formok, fuentien ipintteko. Ta gero, zer esango dotsut /esangotsut/ ba, ba okelie egoten zan edo zozer, oillaskuek etxien hasitte, oillaskuek jeneralien. Gero natilla batzuk, eindde etxien, edo arrozkonletxie ta frutie.

-Bueno, ondo! Elegante!

-Bai. Orduko elegante.

-Bai. Ta edateko?

-Edateko /erateko/ ardaue, hori beti. Ardaue ta ure.

-Baia ardaue egunero edaten zan lehen edo hola espezial.

-Bai, gixonak bai.

-Gixonak bai, andrak ez.

-Andrak ez gintxezan... danentzako egoten zan, ez zan egoten distinziñoik, baina gu beti uraz ohittu ga. Ure ta ardaue edaten /eraten/ genduzen.

5.2. Pilota txapelketak elizpean

- **Hizlaria(k):** Lasuen Uribe-Etxebarria, Juan; Zalduegi Uriarte, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa
- **Erref:** ZAL-013/024
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:50:20. **Bukatu:** 00:51:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Gehienetan elizpean egiten zuten pilotan. Txapelketak ere jokatzeko zituzten bertan.

Transkripzioa

-Elkarrizketatzailea: Frontoia?
-Jose: Frontoie bai, librie
-Juan: Librie, gero zerrau eben
-Jose: Gero ein eben /eiben/ barrixe. Ta gero elizpie.
-Juan: Pelotan elizpan eitten zan.
-Elkarrizketatzailea: A bai?
-Jose: Partiduek... kanpeonatue be jokatzeko zan hor.
-Elkarrizketatzailea: A bai e?
-Juan: Hor elizpan ondo eitten eben batzuek. Juanito ta
-Jose: Bai, Juanito ta... baitte hau, Garita Pedro onena zoan.
-Juan: Bai, ona.
-Jose: Ona. Baiñe asko daz e? [...] ta, onak! Rafael ta, onak asko daz hor. Bankupien sartu ezkeo ba pelotie gatxa da atatzie. Baiñe hor pelotan eitten zan... bueno! Honek Marzelo Txopenak ta Gregorio Zapaterue ta... horrek pelotan be [...] horrek neusixek, horrek gizonak beiñe... urtiekin. Baiñe izerdialdixe atatzeko eben hor.
-Juan: Gu mutikotxuek, gu begire. Mutikuek... Bai, bueno, gu mutikuek ta harek berrogetaka urtiekin e?
-Elkarrizketatzailea: Eleizpean?
-Jose: Bai.

5.3. Entrenamenduak eurek eurretara

- **Hizlaria(k):** Garitaonandia Areitioaurtena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa
- **Erref:** ZAL-014/007
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:09:04. **Bukatu:** 00:10:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Pilotariak eurek eurretara entrenatzen zuten. Pedro, esaterako, Gallastegirekin-eta batzen zen Eibarren. Astean behin edo entrenatzen zuten.

Transkripzioa

-Ta orduan eiten zan oingo moduen? Esan gure dot, oingo moduen eiten zan...
-Oin... gehixa zainddute ta zerien daz, enpresak be zainddu eitten dabe

gehixa, entrenamentuek be eurek imintten dittue, ipiñi eitten dotsez ta. Lehen bakotxak bere.. berak eitten ebana.

-A bai? Entrenamentuek zuk?

-Bai, bai, noberen aidera.

-Osea, entrenadore barik eta...

-Keba, ez. Botillero partidon bat jokatzan zanien mano a manokue edo, botillero. Baiña bestela, noberak eitten eban zera... Gaur horrexetik preparaute ta e... hobeto daz. Enpresiek epiñitte daukaz zeintzuekin entrenau, zer ein ta /ein dde/... lehen bakotxak beren aidera. Guk Akarregiaz ta Gallastegiaz eitten gendun Eiberren entrenamentue.

-Osea, batu eiten zintzien.

-Bai, baiñe geuk bata besteai deittute. Ta oin enpresak eurek epintten dittue.

-Eta egunero entrenetan zinduen?

-Ez! Oin ingo dittue e? oin preparaute daz ta zerien... baiñe lehen, astien entrenau baten ta gero ba partidue, domeketan ta eguenetan ta zapatuetan ta jokatzan zien. Bergaran jokatzan zan eguaztenetan ta zapatuetan ta Eiberren eguenien ta domeketan. Ta partiduen bat astien beti zenduken ta gero ba entrenamentoa. Baiñe gaur ya diferente dabiz, gaur ginasien ta zerien ta diferente.

-Ya, oseake zuek ingo beste ez ezta? Oingo beste ez.

-Lehenguen, ba bakotxak berak itten ebana. Horrexegaittik, ba lehen esan dotsut moduen /moruen/, dedikadu neu be ez nintzen ein asko pelotara bakarrik, ze noberai urte biher eutsan /bitsan/, ta beste geuze batzutan epiñi ninduzen, ba hara gehixa tietu pelotara zaiñtzeko baiño.

5.4. Trapuzko pilotak erreal bat

- **Hizlaria(k)**: Garitaonandia Areitioaurtena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: ZAL-014/011
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:12:31. **Bukatu**: 00:14:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Pilota
Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- **Laburpena**: Elizpean ikasi zuten pilotan jokatzan. Gero hasi zen Eibarko frontoian-eta. Orduan, erreal bat balio zuen trapuzko pilotak dendan. Gero, Azkoitian erosten zituzten atanotarrek egindako pilotak edo Zipirenak Sestaon.

Transkripzioa

-Ta zuk entrenau non eiten zindun?

-Eiberren, bueno Zaldiberren be bai, hamen fronto zaharrien, baiñe hamalau urtetarte ta frontora etorri bez, elizpan.

-Zuk han ikasi dozu? Zuk eleizpean ikasi dozu?

-Elizpan, elizpan, guk e... nik elizpan ikesi dot. Bost urtetik gehixa... karo, ez dozu ezautuko zuk plazie ta elixie, ezautzen dozuz?

-Bueno, ikusi baia...

-Ba elixie hamentxe egoten [baun] ta gure etxie hamen, bixi giñen lekue. Ta ama beti zarataka bezkaittera juteko be anaiaz.

-Egun guztie pelotaka ezta?

-Egun guztixen pelotan. Bai.

-Eta pelota? Erosie?

-Bai, bai. Orduen pelotak be dendan saltzen ebezan /saltzebezan/ Filomenak. Oin be han loibak eta dekez, [...] eta Txopenak eta Gregoriak eta. Pelotak erriele bat balio eben, pelotak, baiña pelotak... trapuzkuek elizpan ebiltteko. Frontoko pelotiek elizparako ez dau balio, trapuzkuek zien. Trapuzkuek narruzkuek zien, baiña trapu modukuek /morukuek/ elizpan ebiltteko.

-Eta gero... baia gero erosiko zindun pelota... frontoirako ezta?

-A frontoirako bai, klaro, klaro. Azkoittixen ta erosten genduzen, Atanok eta eitten ebezan pelotak, ta Ziprik be bai zerien... Barakaldon, Sestaon, Sestaon zan. Bai.

-Eta horrek zer? Ya itxurosoao ezta?

-Partiduek jokatzeko pelotak, entrenamentuetan [...] baia hori ya zan, ya pelotan hasi giñenien frontoien ta, hamasei urtetik gora. Baia hamasei urtearte ta, hamalau urtearte frontoiak ikusi [...] in naben nik, elizpan. Elizpan hiru-lau ordu eunero, eunero, besteik ez euen ezebe ta. Ta nere moduen /moruen/ danak. Zaldiberko mutillek danak, elizpan. Hutsik euenien, anaixek eta bixok ebiltten giñen, baiña sarriten mordue zelan euen ba txandaka, tantue ein ta tantue galtzen ebanak kalera. Baiña, han beti zerien...

-Baia zu ordureko ya umetan ona izingo ziñen ezta?

-Bai, gaztetan ondo.

-Ya ikusiko jatzun, ya apur bet...

-Hortxe nik... Ogetak jaurti ebanien desafixue be, ba neri ipiñi osten.

5.5. Neskak ere tabernara

- **Hizlaria(k):** Irulegi Uribarri, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa
- **Erref:** ZAL-018/013
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:21:11. **Bukatu:** 00:22:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena:** Taberna asko egon izan da herrian. Orduko tabernak denda ere izaten ziren sarritan. Felisaren sasoian neskak ere sartzen ziren tabernara, erromeria ostean edo jaiegunen batean.

Transkripzioa

- Eta dendak esan dozuz eta tabernak be asko egon dira?

- Tabernak be bai, bastante.

- Asko?

- Tabernak, oin be badaz tabernak.

- Bai, oin leku guztietan.

- Oin be bai.

- Baia lehengo taberna batzuk ez ziren izeten be bai dendak? halan, apur bat bietara? Taberna batzuk ez ziren izeten dendak?

- Bai.

- Bai? Bietara, ezta?

- Nik euki nittuen tia eta tio taberna baten ta, bueno, behintzat ez dakit zer saltzen eben, baiña abarketak-eta akordeten naz eta holako gauzak, bai.

- A, baeitu. Eta taberna zan?

- Bai, bai, tabernie zan.
- Eta tabernetan zer, ez zan egongo gaur dauzen gauza beste, ezta? Esan gure dot, ardaua ta... Egoten zan gauza asko?
- Honbre, ba, ardaue, koñaka, anise... horrek bai.
- Eta zerbeza ta holangoak... gaur dauzen moduen?
- Ba ez dakit zerbezie... egongo zan, ez dakit. Kasa, kasa, freskue, kasa.
- Hori be bai?
- Bai.
- Ta lehen andrak sartuten ziren tabernatara edo gehiao gizonak? Lehen diñotsut, e, antziñe-antziñen.
- Bai, gure denporan bai. Nik hirurogeita hamazortzi urte dekaaz. Nere denporan bai. Erromerixeta juten giñenien be, ba, juten giñen tabernara.
- Zuek be bai? neskak be bai?
- Bai, bai, neskak mutilekin edo bakarrik edo... baiñe bai. Ez oingo moduen edo zerien ez..., baiña bai.
- Baia neskak be bai, ezta?
- Bai, gure denporan, ba, hoixe, edo jaixen-edo urteten genduen edo erromerixa edo hamen edo Durangora edo zerien, ta bai, edo kafietesne bat edo fresko bat udan edo...
- Hori lehen, gaztetan?
- Bai, bai.

5.6. Asto eta idi probak

- **Hizlaria(k)**: Irulegi Uribarri, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: ZAL-018/015
- **Iraupena**: 0:03:57. **Hasi**: 00:24:37. **Bukatu**: 00:28:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Herri-kirolak
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: Goierri asto-probak egiten dituzte gaur egun. Bertan, iltze gehien egiten dituen astoak irabazten du. Lehen idiekin egiten zutenean ere berdin egiten zuten. Orain kinielak egiten dituzte probetan apustu egiteko. Idi-proba irabazten duenari idiarentzako manta bat ematen diote; asto probetan, oster, kopa izaten da saria. Lehen idi-probak egiten ziren herrian San Esteban egunean.

Transkripzioa

- Eta zelan iten dire asto-probak ba?
- Ez dozu sekulo ikusi asto probaik?
- Ez.
- Ai, ai, ai...
- Ez dot ikusi. Eske nere inguruen ez da iten.
- Ez da eitten?
- Ez.
- Aiba...Arratixen ez da eitten?
- Asto-probak guk e... zera, gero barrixo bat dekogu, Goierrixen, ermitta bat da ta, klaro, gu lehen hanguek eta oin be zelebretan dittuu jaixek-eta, ezta? Soziedade bat be ein zan eta han urtero egoten da asto-probak, astuek harrixen eruten, zeñek... zeñek gehixa, zeñek honan izeten ,ba, hamendik hara edo, bueno, hori baiño luziague, ez? baiña hemendik hara,

ta ha untza bat izeten da, untzie, "un clavo". Untza bat. Gero bueltan beste bat. Ta harek kontau ta zeñek gehixen eitten daben, ba, haixe irabaiztaille gero.

- Ta idiekaz bardin?

- Bai, idiek... bai. Hamen oin ez da eitten, baiñe bardin.

- Idiek pixu gehau, ezta?

- Pisu... harrix handixaue izengo da, baiñe hori hamen ñta Berrizen-ta asko eitten da hori.

- Ba gurean ez.

- Ez, e? Aiba! Guk hori beti ezautu dou. Astuena lehen-lehen ez, ordun idiek bakarrik izeten zien.

- Ta oin astoak, ezta?

- Bai.

- Eta iten ziren apostuek eta igual dirue edo...?

- Ez, ez.

- Ez zan egon horretarako...

- Ez ta... ez. Oin, ba, oin por ejemplo, asto-probetan eitten da, ta idixetan be bai, a bueno, eingo da igual, e! Eingo da iguel. Baiñe zera, kinielak eitten die, bai, "Ene, horrek astuorrek zenbat eingo dau" ta gero han oseake zenbat diru hartzen daben tanto porzientua-edo emoten dabe premixue. Ta hoixe. Toketan jakonai ba...

- Eta iten ziren igual desafioak edo...

- Bai, hori...

- Batak besteari...

- Klaro, hori be jabiek, animalixen jabiek, eingo eben. Klaro!

- Baie zuek ez dozue eukin horretarako idirik, ez?

- Ez, ez.

- Ze horrek idiorrek ein beharko dire preparau, ez?

- Klaro! Ta zertui ein biher dabe /bidabe/, erabili be bai. Ikusten da sarri, telebisiñuen-ta be ikusten die zelan preparaten dittuen.

- Indar gehau eukiteko edo...

- Klaro.

- Eta zuk badakizu zelan iten diren preparau idiek horrek geuzek ipinten jakozenak hemen eta...?

- Zelan eitten dien?

- Bai, horren izena edo... Badakizu zer esaten dotsuten, ez?

- Bai, bai. Batzuk die mantak. Mantak ipintten... [...].

- Hau, zapa?

- Zapa, bai, bai.

- Guk be bai.

- Zapie, bai.

- Holan koloretan ta...

- Bai, bai.

- Eta besterik holan eroaten dau idiek?

- Ez. Baiñe holan jokutzen dabenien konkurso edo zeretan mantak be izeten die, lehelengo eitten dabenai mantie erregalue be bai izeten da, ta, ba, hoixe. Guk hor astuei kopie izeten da, kopie ta txapela lehelenguai. Ta holan izeten die.

- Ta jente asko joango da ikusten, ezta?

- Bai, bai.

- Oseake hori...

- Herri txikixe ta barrixo bat dala asko, jente asko jueten da.

- Hori herriko jaietan, ezta?

- Bai.

- Ta barrriotako...

- Herrikue ez, barrixokue. Ta hori eitten da geure barrixuen bakarrik,

Goierrixen.

- A, bai?

- Bai.

- Astoena.

- Astuena.

- Ta herriko jaietan, orduen, ez, ez da iten holangorik?

- Ez.

- Lehen be ez? idiekaz edo...?

- A, idixekin bai. Bueno, ez dakitt juliuen eitten zan, baiñe hori eitten zan Gabon aurrien, San Estebanetan. Orduen bai, orduen bai eitten zan.

- Eta oin ez da iten?

- Ez.

5.7. Jai nagusiaren bezperan "txopue" altxatu

- **Hizlaria(k):** Irulegi Uribarri, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa
- **Erref:** ZAL-018/016
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:28:34. **Bukatu:** 00:30:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena:** Herriko jai nagusiaren bezperan "txopue" jartzen dute: arbola-enbor bat altxatzen dute eta loreak edo ikurrina jartzen dizkiote goian. Inguruko herri askotan dago ohitura hori.

Transkripzioa

<p>-Eta lehen zenbet egun eiten ziren jaietan? Zenbet egunetan egoten zan erromerie edo zelebrazioa edo? Edo egun bakarra? - Ba egun bakarra. Bezperan txopue ipini, txopue. -Zer da hori? -Txopue. Hori holan, egur bat ipintten dabe ta goixen zoker gero, gero lora edo /ero/ zoker ipintten jako /ipintteako/ edo ikurriñe edo… -Hori non ipinten da? -Hori, beti hamen herrixen. Zuek ez? Ba jaixek hasieran beti. Ta jente asko jueten da. -Ta hori bezperan? -Bezperan edo jaixek… bueno, iguel domekie… bueno, iguel die baridxeu, domekie ta zer… ordun, baridxeuen edo eguenien, segun noz ipintten dan. Orduen, ba jente asko jueten da. -Osea, ipinten da holan arbola bat? -Bai, arbolie. Osea da, bueno arbola bat edo piñue… zoker bota, hari azala ta dana kendu ta ipintten dotse /ipintteotse/ zoker, arramak eta zerak goixen edo ikurriñe edo… ta gero altzau eitten dabe, ganera luzie izeten da e? baiña hori… eitten dabe, hamen Garaidxen, Mallabidxen, Abadiñon, Matidxenien… Danien eitten dabe hori. -Inguru guztien? -Bai. Ta hamen, osea, geure barridxuen be bai. Bueno, barridxuen ba danetan. Ta herrixen be bai eitten dabe. Ta gero ba botaten dittue ba… txapligue botaten dabe. Ta gero urteten dabe pasakallien, oseake soiñuaz ta zerien… botaten dittue karameluek eta globuek eta umiendako ta horidxe. -Hori bezperan esan dozu ezta? -Bai, bezperan bai, jaidxek hasi aurretik.</p>

5.8. Jaietako eta domeketako jateko bereziak

- **Hizlaria(k):** Irulegi Uribarri, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa
- **Erref:** ZAL-018/026
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:45:45. **Bukatu:** 00:47:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Jaietan baserrian bertan jaiotako osaba-izekoak etortzen ziren. Oilaskoa prestatzen zuten horrelako egunetarako, flana eta arroz-esnea. Bestelako egunetan, astegunetan esaterako, babak jaten zituzten; domeketan, osteran, garbantzu-zopa, arroza eta gisatua edo bakailaoa.

Transkripzioa

-Eta holango egun espezialatan... igual jaietan be etorriko ziren familiakoak ezta?

-Bai. Ganera gendukezan... osea, bertan etxien, gure baserrixen jaixokuek, tiuek, harek etorten... haretzek zien gehixen etorten zienak. Harek beti.

-Jaietan eta?

-Beti.

-Ta Gabonetan?

-Gabonetan ez.

-Gabonetan ez? Bakarrik etzekoak?

-Bai. Etxekuek bakarrik.

-Ta holango okasiño espezialatan edo, zelango jatekoak preparetan ziren? Holan apur bet espezialagoak edo?

-Bai, ba beti. Ez naz akordetan ni holan zera, baiñe... bueno, oin oillaskue edonoz jaten da baiña orduen oillaskuek etxien euzan [...] oillaskue zan "un plato de categoría".

-Ya. Eta ez dakit... postrerik edo ipinten zan?

-Bai. Flan aedo /ero/ arroskonletxe edo /ero/ holako gauzak.

-Etzean einde.

-Bai. Etxekoak.

-Oseake oillaskoa zan apur bet kategorikoa ez?

-Bai, bai.

-Ta hori, komuniñoa edo jaietan edo...

-Bai. Ta ostantzien be jango zan baiñe bueno, holan zan.

-Ta domekak? Iziten ziren be bai apur bet espezialak holan jateko edo?

-Ba bai. Bai, ze ni akordeten naz gurien aste guztien babie jaten zan, berdurie kanbixeu ta babie, ta gero zozer ba... okelie edo zera ezta? Baiña orduen izeten zan ba... zopie, garbanzuen zopie, arroza ta gero zozer diferentie. O gisaue, bakillaue... edozer.

-Apur bet espezialagoa ezta?

-Bai.

6. Baserria

6.1. Eibarrera ortuariak eta arrautzak saltzera

- **Hizlaria(k):** Aiarzaguena Aranzibia, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa

- **Erref:** ZAL-012/007
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:09:50. **Bukatu:** 00:10:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
 Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- **Laburpena:** Ama Eibarrera joaten zen trenez ortuaria saltzen eta gero Isabel bera hasi zen. Udaberrian baba-beltzak, ilarrak, letxugak eta kipula berriak saltzen zituzten; udan, bainak, tomateak eta piperrak; neguan, porruak, azak eta azaloreak. Arrautzak ere saltzen zituzten, oilo asko eduki zuten eta.

Transkripzioa

-Ta ortuen... gu Eibarrera /Eiberra/ juten gintzezan, ama juten zan ta gero ni. Ze ni ezkondu nitzen amen... amaz bizi izen nitzen, aitteaz ta amaz beti.

-Eta Eibarrera zetan ba?

-Ba berdura saltzen. Aza, porruek... oin udebarrixen eoten zien baba-baltzak, iderrak, letxugak, kipula barrixek... gero udan baiñak, tomatiek, piperra, piper txorizerue...

-Horrek saldu ezta?

-Ta gero, neguen porrue ta azie ta azalorie.

-Eta arrautzek eta holan ez?

-Arrautzak be bai. Oilluek asko eukitten genduzen. Oilluek eukitten genduzen... ni umie nitzenien iguel ehun bat oillo bai. Gure amama oillo zale itzela zan, ha zan gobernatzaillie, oilluek.

-Amama? Eta orduen, arrautzek be saldu.

-Bai, bai, bai.

-Ta zelan joaten ziñien hara, Eibarrera?

-Trenien. Egoten zan...

-Ta karga eroateko?

-Karga eruteko estaziñora astuen ta gero trenien.

6.2. San Tomas egunean kapoi gorri hanka horidunak etxeko andreari

- **Hizlaria(k):** Narbaiza Aranguren, Eugenia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa
- **Erref:** ZAL-017/002
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:01:42. **Bukatu:** 00:05:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Baserria 1977an, San Mateo egunean, bota zuten autopista egiteko. Gurasoak baserrira ezkondu ziren, hasieran errentan. Askok gari anegak entregatu behar izaten zituzten errenta ordaintzeko; eurek, oster, dirutan ordaintzen zuten. San Tomas egunean kapoi gorri hanka horidun bi entregatu behar izaten zioten etxeko andreari.

Transkripzioa

-Orduen zuk beti, zuren bizimodu guztie hemen Zaldibarren, ezta?

-Bai.

-Ta han baserrien umetan eta... ezta? Umetako denporea baserrien?

-Baserrien, ez kodu artien baserrien.

-Ta noz bota zan ba baserrie?
 -Baserrie? Ba autopistie ein ebenien.
 -Hori zu ezkondu ta gero?
 -Bai. Zera, San Mateo egune zan, "setenta y sietien" edo, uste dot zala.
 "Setenta y sietien", San Mateo egunien, goixeko zortziretan bota eben. Bai, guk ukusi gendun... ukusi gendun, ra! Keie. Dana, eskarbadorien zaratie, ta dana keie edo zera hautse. Besteik, ez... bota eben etxe hori /etxioi/.
 -Eta karo, aite ta ama esan dozu Berrizkoak ezta?
 -Berrizkuek zien bai.
 -Ta zer, hemen erosi eurien...
 -Ezkondu zienien hona baserrire, hona baserrire ezkondu zien.
 -Baia erosite edo errentan?
 -Ez, errentan.
 -Errentadoreak izin zarie zuek.
 -Bai, errentadorek izen zien. Ta gero erosi eben ba... ni ezkondu aurretuxuen erosi eben etxea.
 -Eta lehen, errentea zer pagetan zan, hille guztietan edo...
 -Ez, urtien. Bai, ta guk geunken suberte bat, zera... ez gendun entregau biher garik. Ze honenbeste fanega gari zan errentie. Baiñe, garixe entregau barik, honen fetxatan eitten daben prezioe, esaten oskun, ointxe haxe prezioen pagau biher dozue /biozue/ ba, hamabost fanega gari dizen prezioe, ze prezioetan dauen ba haxe kantidadie pagau biha gendun errentie. Ta gero Gabonetan, Santo Tomas egunien esijitzen oskun... zerak.... Akordeuko naz... kapoiek. Horrek gorri-gorri haundixok edo zera, gorrixek izen daittezela ta hanka horidunek, ganera exijitzen oskun. Gorrixek eta hanka horidunek. Ta etxien ez bageunkezan ba... haretzek topetan jun biher izeten eban amak ferixan batera. Urte baten, akordeten naz, Santa Luzietan Zumarrara jun zan kapoiok erosten ez geunken ta... ba Gabonetarako eruteko etxekandriai.
 -Bat? Edo bat baiño gehiau?
 -Bi.
 -Bi. Ta horrek hanka horidunek ta, zer dire, hobeak?
 -Bai, hanka horidunek eta gorrixek izen daittezela.
 -Horrek hobeak dire?
 -Presentzia. Berak batan batzui erregaletako izengo zan, edo zer hori /zeroi/. Ba presentziaik onenekuek izen biher eben /bieben/.
 -Eta zuek hasten zinduezan etxean? Edo beti erosi ferien horrek kapoiak?
 -Ez, etxien ez gendun hasten.
 -Erosi?
 -Bai, erosi eitten genduzen zertzeko, emoteko etxekandriai.

6.3. Inguruko etxe gehienak jabe bakar batenak

- **Hizlaria(k)**: Narbaiza Aranguren, Eugenia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: ZAL-017/003
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:05:08. **Bukatu**: 00:07:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Auzoko gehienak errentadoreak ziren, inguruko baserri-etxe gehienak jabe batenak ziren eta, Markinako seme batenak. Azkenean Eugeniaren familiak baserria erosi ahal izan zuen, baina gero

bota egin zieten autopista egiteko. Aldapan zegoenez, ez zieten asko ordaindu.

Transkripzioa

-Eta inguruko baserrikoak be bai bardin? errentoreak ziren edo...
-Bai, inguruko baserrikuek be... bai, danak errentadoriek.
-Oseake, hori iziten zan normalena?
-Bai. Bai, danak errentadoriek ze hamen ba... baserri-etxe asko euen batenak iguel. Hiru edo /ero/ lau etxe edo... gure auzunan be baeuezan zera... gure hurrengo baserri-etxie bizitza bikue eta ba... uzaba batena. Ta harek eukezan hemen Zaldibarren [Zaldiberren] ba, hainbat baserri-etxe. Markinakue [Markiñekue] edo zan bera ta hainbat baserri-etxe euen Zaldibarren, danak errentan. Oin danak dekoz saldute e?
-Bai... baia lehen errentan eukiten zan.
-Lehen danak errentan.
-Ta gero azkenean erosi ein zenduen.
-Bai.
-Ta gero bota, handik eta gitxire?
-Gero bota. Erosi ta /erosi tte/ gero... gero bota.
-Bai. Autopisteagaz ezta?
-Autopistiek. Bai. Ta autopistiek ba... ez doskun asko ordaindu, tercerako zonie zan, aldapie... Ta zelan ezer ezin leiken fabrikau... terreno lauek edo zerak ba, gehixa emon ete eben baiñe aldatsa zelan zan ba han... tercerakue zan. Ta baserri-etxie ta hartu zittuen lurrok danok ba... ehun ta hogetabost mille pezeta pagau otsezan bakarrik gure gurasuei, ehun ta hogetabost mille pezeta.
-Ta lur asko ziren ingurukoak, zuonak edo...?
-Bai, lurre... bastante lur... bueno, lurrik gehixen beheraua geunken, baiñe goi-goittik ein eben etxie bota ta. Bai ba, beheaua geunkezan lurrek lauauek zien ta aldats-aldatsien, ba terrenoik gutxien euen lekuen... ta etxioi bota eben ta...
-Jo, pena ezta?
-Bai. Ba baserri-etxie akabo

6.4. Pinuak eta fruta-arbolak saldu

- **Hizlaria(k)**: Irulegi Uribarri, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: ZAL-018/006
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:07:09. **Bukatu**: 00:08:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- **Laburpena**: Pinuak eta fruta-arbolak saltzeko eduki zituzten. Gehien etxetik saltzen zuten, baina Abadiño eta Zumarragako feriara ere joaten ziren.

Transkripzioa

-Ta orduen, esan dostezu frutarbolak-eta euki dozuezala etzean?
-Bai, bueno, frutarbolak bai. Osea, arbolak etzien be bai ezta? Jateko ta zerien. Baiña ostantzien saltzeko, piñuek eta... ba horixe.
-Ta saldu non eiten zinduen?
-Saldu ba ferixetan edo /ero/ eskatu klientiek eitten eben, eskatu eitten

eben.

-Ta hemen feriek eta inguruon non egon dire? Ze herriten edo?

-Bueno, ba hamen ferixak... San Blasetan beti. Abadiñon ta gero Zumarrara be jueten zien. Baiña gehixen ba etzetik saltzen zan e? etzetik saltzen zan. Ta klientiek ba... osea, kanpotik be bai. Euskal Herritik eta kanpokuek be bai e?

-A bai e?

-Bai.

-Etorten jatzuezan etzera?

-Bai, bai. Zaragoza ta... bueno, oin momentuen ez naz akordetan, baiñe bai. Logroño ta... bai. Lerida ta.

-Ta ze fruta iziten zan ba? Ze fruta...

-Ze fruta? Ba bueno zuri... iguel ba guri eskatzen oskuen ba... guk frutalak hartu ez genduzen eitten landarak etzien. Harek erosi [...] Lerida edo kanpokuei erosi ta gero guk saldu eitten genduzen. Baiñe piñuek ba... ba, etzien, erein basuen, ta gero landarak ba saldu basuetan ipinteko.

-Ya, ya, ya.

6.5. Arraina Eibarko plazatik

- **Hizlaria(k)**: Irulegi Uribarri, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: ZAL-018/027
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:47:18. **Bukatu**: 00:49:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Arraina etxerik etxe saltzen zuten, baina arrandegia ere egon izan da Zaldibarren. Hala ere, lehen Eibarko plazara joaten ziren ortuariak saltzen eta handik ekartzen zuten arraina.

Transkripzioa

- Eta, holan, arraiña, peskeue-edo, erosten zenduen?

- Bai, ta, ganera, saso baten etorri eitten zan etxera.

- A bai?

- Bai, bueno ya hori gu... ezkondu ta gero edo holan, bai, edo... oin... bueno, ya oin 50 urte edo gehixa.

- Baiña, ostean, dendan egon zan?

- Etorri eitten zan etxera, etxera. Ta, ostantzin, hamen arraindegixe baeuan. Egon , bai.

- Zure ume denporan be bai?

- Gure ume denporan ez dakit, baiñe gero bai. Baiñe, klaro, gero hamendik Eibarrera plazara jueten zan jente asko berdurak-eta saltzen baserrittarrak. Nere ama be bai. Eta handik ekarten zan, arraiñe handik ekarten zan.

- Baia ez zan jango asko, ez?

- E?

- Askotan ez zan jango igual, ez, arraiña?

- Askotan?

- Sarri jaten zan?

- Bai, egunero. Egon saltzen?

- Ez, diñot zuek jan etxean.

- Aaa jan...

- Egunero?

- Ez, egunero ez ez

- Apurr bet espeziala zan edo?

- Ez, korrientie be bai, espiezala barik be bai izeten zan.

- Baia beti ez zan jaten, ez?

- Egunero ez, edo Ebarrera jueten zanien edo... Ta gero, ba, bertara etorten jakun /etorteakun/ zera, arraiñe, bertara, etxera.

- Eta... baia zelan?

- Ba zelan, ba, ekarten eban furgonetan-edo ekarte eben eta gero juen hara eta zeuk gura dozuna erosi.

- Bale, bale.

- Berak eukena.

- Ta hor Eibarren zer egon zan, azoka bat edo egoten zan?

- Zera, bai, plazie, azokie, bai. Gero bota ein eben ta oin ez da zera oindik, baiñe plaza ederra egoten zan.

- Eta noz egoten zan?

- Egunero.

- Egunero?

- Egunero.

- Ta zure ama joaten zan, egunero?

- Egunero ez, egunero ez zan juten, baiñe, bai, esnie, berdurie-ta eruten eban, ta neu be bai iñoz.

- Holango etxeko geuzek, ezta? arrautzek eta holan be bai edo?

- Gurien arrautza asko ez, ze etxien be asko biher izeten zan ta jente asko egongo zan ta...

6.6. "Zelemiñe", anega eta "imillaune" aleak neurtzeko neurriak

- **Hizlaria(k)**: Garitaonandia Gisasola, Jose Mari; Lasuen Solozabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: ZAL-022/005
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:06:33. **Bukatu**: 00:08:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Likidoentzat azunbrea zen erabiltzen zuten neurria eta kiloa pisuarentzat. Aleak neurtzeko, osterá, "zelemiñe", anega eta "imillaune" ziren erabiltzen zuten neurriak.

Transkripzioa

-Elkarrizketatzailea: Zelan dire? Azunbrea eta holan esneantzat ta...

-Juan: Bai, karo.

-Jose Mari: Bai, bai, likidóa, likidóa.

-Juan: Karo, azunbrie, azunbreen erdixe zan litrue.

-Jose Mari: Azunberdi te /tte/.

-Juan: Erdi. Gero laukue, laurena.

-Elkarrizketatzailea: Horrek erabilten ziren lehen gehau?

-Jose Mari: Bai, bai, bai, ardauaz ta bai. Ardauaz ta...

-Elkarrizketatzailea: Ta kilóa barik besteren bat?

-Juan: Kilue ta kilo erdi. Edo lauren edo...

-Jose Mari: Kilo, kilo erdi. Edozein, pisuen.

-Juan: Pisuek euezan horrek bandeja bikuek.

-Jose Mari: Bandeja bikuek, balantza.

-Juan: Balanzie. Ta gero etorri zien ba bestiek, honek... gerra aurretik etorri zien horrek e?

-Elkarrizketatzailea: Zeintzuk?

-Juan: Gerra aurretik, horrek pisuok.

-Jose Mari: Bai, bai, bai. Horrek balanzok plato bikuek.

-Juan: Oin dauzen estilukuek, baiña elektronikuek barik [...]

-Elkarrizketatzailea: Ta ez dozue entzun zuek iñoz zelemiñe eta holango geuzek?

-Juan: Zelemiñe ta horrek neurrixok zien granue neurtzeko.

Jose Mari: Granuek. Esakto.

Juan: Fanega, fanega erdixe, imillaune... Imillaune nik uste dot entzunde dekotela hiru kilo eukitten ebazela. Baiñe hori izeten zan, ba iguel baba gorrixo, edo garixe edo artue edo... beteten zan, egurrezko ontzixe, gaiñetik pasetan jakon /pasetakon/ egur bat ta [...] zan neurrixo. Baiña horrek zien ya granue neurtzeko. Errotara ta baserrittarrak eruten ebezan granuek. Guk dendetan beti [erabili du] kilue, kilo erdixe ta laurdena.

7. Ekonomia eta industria

7.1. Herrian lana armagintzan eta torlojugintzan

- **Hizlaria(k)**: Lasuen Uribe-Etxebarria, Juan; Zalduegi Uriarte, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: ZAL-013/003
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:05:40. **Bukatu**: 00:07:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Durangaldeko lantegiak
- **Laburpena**: Juanen aitak zerratokian egiten zuen lan. Orduan errez topatzen zuten lana herrian, armagintzan eta torlojugintzan esaterako. Euren ume sasoiari hasi ziren enpresak Zaldibarren. Eibarren ere ibili izan da Juan armagintzan lanean.

Transkripzioa

-Jose: Baiñe, aitek beti eingo joan edo /ero/... ordutik gehixa kalien eingo joan bihera?

-Juan: Bai, bai. Ya eurretik ya...

-Jose: Lantokixe atrapatzen ba orduen... fasillau eguen.

-Juan: Zerran, zerran.

-Jose: Hemen... hemen enpresa banekie zabaltzen hasitte... eskopeta ta bueno, hemen tornillerixa ta zabaltzen hasi zien, hau [Plentxiak] eitten zittun [...] ta jentie kolokau eitten zan. Gu mutikuek giñenien.

-Elkarrizketatzailea: Orduen hasi ziren apur beti fabrikak eta?

-Biek: Bai, bai.

-Elkarrizketatzailea: Ta baserriko jentea joaten zan fabriketara?

-Juan: Bai. Bata ta bestie ta... txikixek zera...

-Jose: Enpresa txikixek asko izen zien ordun.

-Elkarrizketatzailea: Ta zuek zenbet urte edo?

-Juan: Nik orduek e... hamalau, hamalau urte nekezan. Honek ba...

-Jose: Nik hamazazpi edo, hamazazpi.

-Juan: Ni eskolatik urten ta ba... ta amak edo: juen hadi taillerrera! [Amara] ta eskupetan ikesten liman... gero urtebete bat edo in nabezan hor ta gero Eibarrera [Eibarra].

-Elkarrizketatzailea: Zetan hara?
 -Juan: Ikesten eskupetie. Eskopetak eitten.
 -Elkarrizketatzailea: A bai e?
 -Jose: Hau, eskopetan ona zan hau, ona ixen da.
 -Elkarrizketatzailea: Eta horretan ein dozu behar gero?
 -Juan: Beti, denpora guztien, ya jubilau arte eskopetan, eitten.
 -Elkarrizketatzailea: Hemen? Zaldibarren edo?
 -Juan: Zaldibarren [Zaldiberren] be eitten nuen ta gero.... Lehengo "ocheinta y tres" edo horrexegaittik hona ba... zerrau in zan teillerra ta gero geuk ipiñi genduen beste teiller txiki bat [...] Eibarren [Eiberren]. [SAL] holan zera... soziedadie.

8. Herria, azpiegitura

8.1. Kotxeak ordu beterik behin

- **Hizlaria(k)**: Lasuen Uribe-Etxebarria, Juan; Zalduegi Uriarte, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: ZAL-013/023
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:49:25. **Bukatu**: 00:50:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- **Laburpena**: Lehen kotxe gutxi ikusten zen. Futbol partidu osoak jokutzen zituzten bidean, ordu beterik behin-edo pasatzen zen kotxeren bat eta.

Transkripzioa

-Jose: Oin hirurogeta... hirurogeta hamar urte, oin hirurogeta hamar urte edo /ero/ holakue, hirurogeta zortzi edo hamar [...] futbolien eitten genduen kamiñuen, harrixek ipiñi erdixen eta. Behin o behin kotxe bat etorten bazan, kendu harrixek eta paseten zan ta, hurrengo ordu erdixen ta ordu betien ta... Partidue jokutzen zan. Honek [Antxon Villa] ta... honek jokutzen... ni fubolien eskasa nintzela ta porteru ipintten nindduen.
 -Juan: Gero mutikuek jun giñazen baten, hemen [...] eitten giñazen eta Ermure, [...] emon oskuen palize bat Ermuen... kanpo-fubolien ta. Gure erropak eta...
 -Elkarrizketatzailea: Euki zenduen taldea ala? Futbol taldea?
 -Biek: Keba!
 -Jose: ez, ez, ez.
 -Juan: Hamen, eskolan ba preparaute... bueno.
 -Elkarrizketatzailea: Ta Ermura?
 -Juan: Bueno, Ermure juen ta...
 -Elkarrizketatzailea: Baia hemen ez zan egon kanpo-futbola ezta?
 -Juan: Keba.

8.2. Kanpoko jende aberatsa herriko bainuetxera

- **Hizlaria(k)**: Irulegi Uribarri, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: ZAL-018/033
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:55:33. **Bukatu**: 00:57:37

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena:** Beti ezagutu ditu komentua eta sanatorioa. Hala ere, lehen bainuetxea egon zen orain sanatorioa dagoen lekuan. Kanpoko jende aberatsa etortzen zen eta hotel bi ere egon zen herrian.

Transkripzioa

- Hamen da komentu bat da ta gero sanatorixue ta, ba, egoten da mezie.
- Ta han konbentuan monjak badauz?
- Bai. Ta, ganera, etorritte daz Markiñetik be etorri zien ointxe urte batzuk hona, Zaldibarrera.
- Ta sanatorioa esan dozu?
- Sanatorio, bai. Sanatoriue zera, osea burutik zertute dauzenak, zoruekedo esaten dana. bai.
- Ta hori beti egon da hamen?
- Bai, beti ezautu dot. Bueno, nik beti ezautu dot. Ta lehen oin sanatorixue daon lekuen lehen euen balnearixue.
- Bai, e?
- Balnearixue euren, ta hori nik ez dot ezautu. Ez dot ezautu.
- Jao, baia jentea...
- Ta orduan etorten zan jentie kanpotik, ganera, uuu... karrozak eta... elegantie, Bartzelonatik eta Madrildik-eta jentie.
- Ta zer egon zan...?
- Hotelak.
- Baia uren bat...?
- Ure, bai, espeziala. Espeziala ure.
- Eta zuk ez dozu ezautu, orduen, hori?
- E?
- Ez dozu ezautu zuk?
- Bueno, ez, osea ke han sanatorixuen... Gero bai, gero... osea ke, zerien, hori balnearixue euen lekuen ipini eben sanatorixue, ta, ba, hori ez naz akordetan, ez, aurreko balnearixue. Baiñe gero edizio txiki bat zan ta bañuek emoten zittuen han, osea, segidu eben urte batzuetan.
- Etorten zan jende apur bat dotorea ta?
- Bai, baiñe, bueno, ya gero jente gutxiao etorten zan, jente gutxiao. Nere akorduen jente gutxiao etorten zan. Baiñe bai, etorten zien Barzelonatik be bai ta etorten zien ta hemen hotel bi-edo euezan, ta gero etxe partikularretara be bai ta jentie egoten zan.
- Baiñuek hartu ta... beitu. Ta orduen lehen hor meza iten zan, mezea iten zenduen sanatorioan?
- Bai. Bueno, lehen-lehen ez dakit, oin bai eitten da.

8.3. Forjan eta alkatetzan beharrean

- **Hizlaria(k):** Sanpedro Landazabal, Pablo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa
- **Erref:** ZAL-020/003
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:03:13. **Bukatu:** 00:04:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Durangaldeko lantegiak

- **Laburpena:** Alkate izan zenean, forjan ere egiten zuen behar. Orduan ez zuen soldatarik kobratzen alkatetzatik, primak kobratzen zituen.

Transkripzioa

-Ta zuk hortik aparte euki dozu beste beharrik edo...

-Nik esto... forjan eitten naban biherra. Bueno, esan gure dot /gurot/... hango sozio ein gintzezan. Han "jefe de fábrica" izen nintzen atzenengo urtietan.

-Eta horregaz batera izin zara alkatea edo...

-Bai. Ez, batera.

-Biek? Behar biek euki dozuz.

-Bai, orduen hemen ez zan... egunero etortzen nintzen baiñe, esan gure dot, oingo moduen /moruen/ suelduaz ta... atzenengo urtietan. Baiñe ni nintzen... beste zer baten eitten neban ba... ba eukiten nittun primak, "por asistencia" edo esaten jakona /esateakona/.

-Baia holan sueldu sueldue ez ezta?

-Ez.

-Oin bai eukiten da ez?

-Oin bai.

-Oin eukiten da ezta? Oin dedikaziño konpletoa igual alkateak be bai ezta?

-Bueno, baiñe ni egunero etortzen nintzan e? Egunero, hiru ordu falta eitten baebe hiru edo bi edo bat edo...

-Egunero ezta? Beharra ezta? Behar handie da ez?

-Ba, bueno, en fin. Ohittu eitten za ta ba...

-Ta zuk gusture ein dozu?

-Bai, bien.

-Pozik ezta?

-Bueno ya... ya hamabi urteaz ya nahikue da ta...

-Ya... kantsau be bai ezta azkenean?

-Kantsau edo...

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Zaldibartar bati hanka kendu eta arreba hil (ZAL-008/007)

Pedro Gallastegi zaldibartarrari hanka bat kendu zioten gerran. Abeslari ona izan zen, tenorra. Arreba ere gerra sasoiari hil zuten.

2. Kafea eta azukrea Eibartik kontrabandoan (ZAL-008/008)

Gerra sasoiari ezkutuan joaten ziren Eibarko taberna batera falta zutena hartzera, kafea eta azukrea esaterako.

3. Eibarrera esnea saltzera (ZAL-008/011)

Gurasoek eta izekok esne-kantinak eramaten zituzten Eibarrera astoz. Baba kiloak eramanez gero, Olarreagan Gipuzkoara sartzeko zerga ordaindu behar izaten zuten. Gero eta esne gutxiago saltzen zuten urteek aurrera egin ahala

eta horregatik hasi ziren zentralari saltzen. Hamahiru bat urte zituela hasi zen Jon Ander Eibarren esnea saltzen.

4. Behiak eskuz jetzi (ZAL-008/014)

Ama seietan irteten zen esnetan. Behiak egunean bitan jezten zituzten; antzutzen ari zirenak izan ezik, horiek behin jezten zituzten. Hasieran eskuz egiten zuten, makinak etorri ziren arte.

5. Tabernak bezero (ZAL-008/016)

Bezero gehienek egunean bertan ordaintzen zuten. Tabernek, osterara, normalean astean astean ordaintzen zuten. Taberna mordoak eduki zuten bezero. Abuztuan oportetean joaten zirenean ere ordaintzen zieten, esnerik eraman ez arren.

6. Idi-bikote gaztea erosi gero saltzeko (ZAL-008/019)

Azken idi-bikotea Urduña aldetik ekarri zuen aitak. Idi-bikote gaztea erosten zuen eta gero uztarria, hedeak eta aparejua egiten zizkien. Azkenik beharrean erakusten zien eta urte bira saldu egiten zituen.

7. Lehengo uztargileak (ZAL-008/020)

Zaldibarko 'Antzua'-k egiten zituen hedeak eta uztarriak. Lehenago, Elorrioko Eusebio eta Berrizko Asentsio Urresti ziren inguruko uztargileak. Uztarria egin baino lehen, pagoa askan eduki behar izaten zuten beratzten. Egun bat edo bi ematen zituzten uztargileek euren lana egiten. Hala ere, orain eibartar batek ordu biko egiten ei du.

8. Soldadutza Baztanen (ZAL-008/022)

Baztanen egon zen soldadu Jon Ander. San Lorentzoko jaietan Izpegiko portua pasatuta joaten ziren erromeriara, ezkutuan. Erratzuko inauterietan ere jai itzela egiten zuten. Brigada ona zuten, baina teniente gogorra.

9. Soldadutzatik etxera behin etorri (ZAL-008/025)

Zaldibartik Baztanera joateko "La vaca" tren hartu zuen. Baten baino ez zen etxera etorri soldadutzan egon zen artean, Gabonetan.

10. Inauteriak Iruzibietan (ZAL-008/026)

Inguruko tabernetan makina bat dantza egindakoa da Jon Ander. Trabakuako Iruzibietan tabernan, esaterako, erromeria itzela egiten zuten inauterietan.

11. 800 pezetako bizikleta (ZAL-008/027)

Lehenengo bizikleta 800 pezeta ordaindu zituen, hemeretzi bat urte zituela. Eibarren erosi zuen, Orbea bat.

12. Inguruko erromeriak (ZAL-008/028)

Neguan, Durangoko Ezkurdi plazako erromeriara joaten ziren sarritan. Bandak eta orkestrak jotzen zuen bertan. Arrate egunekoak ere erromeria handia izaten zen eta baita Urkiolako San Antonio egunekoak ere. Arraten dantza solteko lehiaketak egiten ziren.

13. Garaiko Santiagoetako erromeria kentzeko agindua (ZAL-008/029)

Santiagoetan Garain egiten zen erromeria. Behin, Bizkaiko Gobernadore Zibila hil zela eta Garaiko erromeria kentzeko agindua eman zuten.

14. Garizuman erromeria Deban (ZAL-008/030)

Garizuman erromeriak kendu egiten zituzten, baina Deban utzi egiten zituzten. Jende mordoa joaten zen bertara.

15. Ezkurdiko erromeria (ZAL-008/031)

Ezkurdiko erromerian, alde batean gizonak egoten ziren eta bestean emakumeak. San Antonio egunean, Urkiolatik jaitsi ostean egiten zen erromeria handia Ezkurdin. Azkenengo trenean joaten ziren etxera, "eskoba"-n.

16. Seme-alaba bi egun berean hil (ZAL-010/002)

Amak zortzi seme-alaba eduki zituen, baina bostek egin zuten aurrera. Seme-alaba bi egun berean hil zitzaizkion, kukutxeztulak jota. Jose Luisek ere eduki zuen, baina ur beroa paparrean jarrita kendu zitzaion. Azken seme-alaba jaiotzean hil zitzaion amari.

17. Domeketako arropak (ZAL-010/006)

Alkandoraren lepoa ondo lisatzeko almidoia erabiltzen zuten. Alkandorak zortzian behin janzten zituzten, domeketan. Lehengo emakumeek, oster, beherainoko gonak eramaten zituzten mezetara joateko eta baita buruko painelua eta mantila ere.

18. Mariaren Alabak eta luistarrak (ZAL-010/009)

Neskak Mariaren Alabak taldean ibiltzen ziren eta mutilak luistarretan. Hilean baten batzen ziren eta komunioa hartzeko medaila janzten zuten.

19. Umeak Paristik (ZAL-010/011)

Umetan ez zekiten zer zen emakume bat haurdun egotea, umeak Paristik zetoze esaten zieten eta. Ganaduen erditzeak eta sarritan ikusten zituzten, baina ez zekiten ezer pertsonen erditzeen inguruan. Hileroko kontuetan ere berdin ibiltzen ziren, etorri arte jakin ez zer zen.

20. Lehengo mezak luzeak eta latinez (ZAL-010/013)

Ordu bete inguruko mezak izaten ziren lehengoak. Meza latinez izaten zen, baina sermoia euskaraz. Gainera baraurik joan behar izaten zuten. Abadeak aurrera begira esaten zuen meza, lepoz.

21. Euskara debekatuta eskolan (ZAL-010/015)

Umetan dena egiten zuten erdaraz eskolan, baita dotrina bera ere. Erdararik jakin ez eta zigortu egiten zituzten eskolan euskaraz egitearren: eraztuna pasatzen zioten elkarri euskaraz egiten zutenean. Honez gain, eskolara sartu orduko Espainiako bandera atera eta 'Cara al Sol' abestu behar izaten zuten.

22. Eskolako maisu-maistrak (ZAL-010/016)

Neskak doña Amparo maistrarekin ibiltzen ziren, adin guztietakoak batera. Mutilek, ostera, maisu-maistra asko eduki zituzten, sarritan aldatzen zituzten eta. Mutilek maistra gogorra eduki zuten aldikada batean.

23. Mutilak pilotan eta tronpan; neskak tortolasetan eta txantxurriketan (ZAL-010/019)

Umetan txirikiletan jolasten zuten, makila jaurtiz. Neskak tortolasetan eta txantxurriketan ibiltzen ziren. Azken honetarako, behegaina markatu egiten zuten bertan saltoka ibiltzeko. Mutilek, normalean, pilotan eta tronpan jolasten zuten.

24. Gerraostean, irratia eta 'Euzkadi' aldizkaria debekatuta (ZAL-010/023)

Gerraostean debekatuta egon zen irratia edukitzea eta baita Euzkadi egunkaria bera ere. Etxean zituzten aleak erre egin behar izan zituzten. Irratia erosi zutenean, Bilbo, Donosti eta Andorra izaten ziren entzuten zituztenak, eta La Gaceta del Norte eta La Voz de España irakurtzen zituzten egunkariak. Elizan, Zeruko argia aldizkaria hartzen zuten.

25. Gerra sasoian abizena z-taz jarri zieten (ZAL-010/025)

Gerra sasoian abizena z-taz idatzi zieten, Zarraua. Eurek ezer jakin barik aldatu zuten.

26. Gerra sasoian milizianoak ermita ondoan (ZAL-010/026)

Gerran, ermita ondoan egoten ziren milizianoak. Inguruko gizonak trintxerak egitera eramane zituzten Intxorta ingurura, tartean aita. Sarri etortzen zitzairen miliziano bat etxera esnea edatera. Pare bat aldiz, trenaren tunelean ezkutatu behar izan zuten hegazkinen beldur zirelako.

27. Zaldibartik tropak pasatu zirenekoa (ZAL-010/027)

Sozietate inguruan goitik behera dagoen bidetik pasatu ziren tropak Zaldibarren. Eurek ikusi ere ez zituzten egin, aita ikusi ei zituen. Behin, miliziano batek katu bat eskatu zion aitari. Bertan hil zuen, larrua kendu eta jateko eramane zuen.

28. Gerraostean baserriko jeneroa entregatu beharra (ZAL-010/028)

Gerra sasoian ez zuten goserik pasatu, baina gauza batzuen falta eduki zuten. Gainera, baserrikoei garia, artoa, baba eta patata kentzen zieten. Itxura denez, ez zen behar zutenei emateko, baizik eta Francoren aldekoek eramateko.

29. Errazionamendua eta estraperloa (ZAL-010/029)

Olio eta horrelako jeneroak errazionamenduan erosten zituzten. Gutxi tokatzen zitzairen eta estraperloan erosi behar izaten zuten. Inoiz hoge ogerleko ordaindu zuen amak estraperloko olio. Xaboa ere gutxi edukitzen zuten, errazionamenduan zegoen eta.

30. Ogia errazionamenduan (ZAL-010/031)

Ogia etxean egiten zuten, baina kalekoek errazionamenduan erosi behar izaten zuten. Ogi txiki bat ematen zioten bakoitzari egunean. Orduan beharrian handia zegoen eta eskekoak ere sarri ikusten ziren. Dirua eman barik, artabururen bat edo ematen zieten.

31. Auzoko ume guztiak batzen ziren jolasteko (ZAL-012/002)

Ume asko zegoen auzoan eta elkarrekin batu eta jolasten zuten. Oso jostailu gutxi zeukaten orduan. Domeketan denak elkartu eta dantzaldiak egiten zituzten eurek eurretara: abestu eta dantzatu.

32. Baserriko beharretan laguntzeko mutila (ZAL-012/006)

Etxean mutil bat edukitzen zuten baserriko beharretan laguntzeko. Ortuko beharrak egiten zituen eta irak batu negurako.

33. Goizean Eibarrera eta arratsaldean eskolara (ZAL-012/008)

Hamahiru urte zituela hasi zen Isabel Eibarren ortuaria saltzen. Arratsaldean eskolara joaten zen. Eibarren postua edukitzearren 30 bat pezeta ordaintzen zuten hilean. Esnea Zaldibarreko etxeetan saltzen zuten ahizpek eta bueltan asto-karrerak egiten zituzten auzokoekin.

34. Ehun bat oilo txabolan (ZAL-012/009)

Ehun bat oilo eduki zuten. Txabolan edukitzen zituzten eta gero kanpoan. Habiak ipintzen zizkieten txabola barruan, zaran zaharrekin eta belarrekin egindakoak. Hala ere, habian bertan arrautza bat utzi behar izaten zitzaien; inoiz gezurretakoa ere.

35. Oiloak udaberrian lokatu (ZAL-012/010)

Oiloa lokatzen zenean arrautzak jartzen zitzaizkion eta zaran bat gainean, oiloa bertatik irten ez zedin. Egunean behin zarana kentzen zitzaion jaten emateko. Normalean udaberrian lokatzen ziren eta Aste Santu edo Pazko egunerako saltzen zituzten oilaskoak. Oiloei artagaraua eta garia ematen zieten jateko.

36. Txerria San Blas inguruan hil (ZAL-012/011)

Untxi gutxi eduki izan dute, behiak bost-sei eta idi bikotea beharrerako. Txerria San Blas inguruan hiltzen zuten. Harakina, "karnazerue", izandako bat ibiltzen zen auzoko txerriak hiltzen. Mahai gainean hiltzen zuten, ilea erre, azala ondo garbitu eta zabaldua eskegitzen zuten. Andreen lana odola batzea izaten zen.

37. Ganaduen ermandadea (ZAL-012/013)

Hamabost bat baserri egon ziren ermandadean. Seguru moduko bat zen, behientzat, idientzat eta txahalentzat. Urtean hiru-lau izaten ziren ermandadeko buruak, txandaka. Animalia ren bat hiltzen zenean, San Martinen errematea egiten zuten eta zezinarako aprobetxatzen zuten okela.

38. Txahalak harategira saldu (ZAL-012/014)

Txahalak etxean hazi eta harategira saltzen zituzten. Harakinak gibel zati bat ematen zien. Harategira astean behin baino ez ziren joaten, etxean oiloak eta oilaskoak zituzten jateko eta.

39. Behiari txahala egiten lagundu (ZAL-012/015)

Normalean, urtero egiten zuen txahala behiak eta bederatzi hilabetez egoten zen ernari. "Antzua" baserriko zekorarengana eramaten zuten. Ondo etorritz gero, eurek laguntzen zioten behiari txahala egiten: hankak lotu eta sokatik tiratzen zuten. Gero, botila bete ardo ematen zioten behiari.

40. Txahala ahalik eta lasterren errepetatik kendu (ZAL-012/016)

Esnea saltzen zutenez, ahalik eta lasterren kentzen zuten txahala errepetatik. Orduan, pentsu bereziak ematen zitzaizkion txahalari eta baita esne hautsak ere.

41. Zaldibarko sindikatua "Bañeran" (ZAL-012/017)

Umea zenean, "Bañeran" egon zen sindikatua. Bertan, pentsuak-eta erosten zituzten. Ganadua erosteko feria Elgoibarren eta Zorrotzan egon zen. Herrian ez da tratanterik egon, baserritarrak eurak ibiltzen ziren salerosketan.

42. Lurra satsarekin eta karearekin tratatu (ZAL-012/018)

Neguan ortuariak ateratzen dira, marti inguruan kipulak-eta sartzen hasi arte. Haziak lur zatitxo batean jartzen zituzten etxerako landareak ateratzeko. Lur hori satsik onenarekin tratatzen zuten. Lehen udaberrian karea ere erabiltzen zuten, baina orain txarra dela diote. Eurek almazenetik ekartzen zuten, baina karobiren bat ere egon ei zen inguruan.

43. Lurra prestatzeko goldea eta area (ZAL-012/019)

Martian jartzen da ortuko jenerorik gehiena eta lekuz aldatzen dituzte urterik urte. Lehen, lurra atsedean hartzen utzi nahi zutenean sekula-belarra edo alpapa ereiten zuten. Lurra ereiteko prestatzeko, lehenengo goldea pasatzen zuten eta gero arearekin apurtu. Laiatzen gutxitan ikusi du Isabelek.

44. Uztargileak etxerik etxe uztarriak egiten (ZAL-012/020)

Idiak uztartu eta erremintari lotzeko "burterie" izeneko pieza erabiltzen zuten. Abereak babesteko, ostera, zapak jartzen zizkieten eta zapi moduko bat zauririk ez egiteko. Uztarria egiteko, pagoa urte bian eduki behar izaten zuten sikatzen. Uztargileak eurak ibiltzen ziren etxerik etxe uztarriak egiten.

45. Baba zakuak idientzat eta behientzat (ZAL-012/021)

Idiei artaburuak ematen zizkieten jateko eta inoiz baba zakuren bat ere bai. Behiei, esaterako, baba zakua txahala egin berri zutenean ematen zieten.

46. Idiaren aurrean "utzutzunen" (ZAL-012/022)

Idiarekin soroa lantzen zutenean, pertsona batek aurrean jarri behar izaten zuen zuzentzeko eta beste batek atzean. Soroa gorritu behar zenean, ganaduaren aurrean joateari "utzutzunen" esaten diote.

47. Lehen botikarik ez ortuan (ZAL-012/023)

Lehen ez zuten botikarik erabiltzen ortuan. Bareak, esaterako, aitzurrarekin hiltzen zituzten. Tomateari, hala ere, sulfatoa bota izan zaio beti eta patatari detanoa.

48. Garia eta artoa udaletxean entregatu behar (ZAL-012/024)

Hamalau urte zituela utzi zioten garia ereiteari. Etxerako jartzen zuten, baina sasoi batean parte bat entregatu behar izaten zuten udaletxean. Artoa ere entregatzen zuten.

49. Labesua astean behin (ZAL-012/025)

Astean behin egiten zuten labesua etxean. Labea ondo berotu behar izaten zen, harria zuritu arte. Lehenengo artoak sartzen zituzten labera eta gero ogiak. Berrizerako bidean hiru errota zeuden: Antzuako errota, Uribekoa eta Berrizen Belakortu.

50. Metak belarrarekin eta irekin (ZAL-012/027)

Ganaduen jatekoa izaten ziren arto-irina lastoarekin, belar sikua eta pentsua. Udan mozten zuten belarra eta sabaian gordetzen zuten edo metak egiten zituzten. Udagoienera ere askotan egiten zituzten metak irekin.

51. Azpiak sastokian pilatu (ZAL-012/028)

Sastokia kortan edukitzen zuten edo kortatik aparte. Behie egunero ateratzen zizkieten azpiak sardarekin eta baztertura uzten ziren gero sastokira ateratzeko. Oiloen satsa ere oso ona da, baina eurek ez zuten aprobetxatzen.

52. Sagar urtean sagar asko etxerako (ZAL-012/029)

Fruta asko edukitzen zuten etxean. Sagar urtea, esaterako, urte birik behin izaten zen eta orduan urte guztirako edukitzen zituzten sagarrak. Ganbaran kontserbatzen zituzten, belarra azpian jarrita. "Reinetak", gorri-garratzak, urdin-sagarrak, bost kantoiak eta urtebeteak izaten ziren eurenengan zeuden klaseak.

53. Sagardoa eta txakolina etxerako (ZAL-012/030)

Txakolina eta sagardoa egiten zituzten dolarearekin. Sagarrak edo mahatsak xehatzen zituzten dolarean eta iturritik irteten zen ura. Kupeletan gordetzen zuten lehenengo eta gero botiletan. Inoiz, dolarean barik, mahatsa zapalduz ere egin izan duten txakolina.

54. Neguan sagar erreak eta makatz egosiak (ZAL-012/031)

Sagarrak, makatzak eta pikuak saldu ere egiten zituzten. Neguan askotan jaten zituzten sagarrak erreta eta makatzak egosita azukre apur batekin. Etxean goizetiko-makatzak, Karmen-makatzak, azukre-makatzak, "orandillak" eta txindurri-makatzak edukitzen zituzten.

55. Udaberrian mentak (ZAL-012/032)

Mentak ere egin izan dituzte etxeko zuhaitzetan. Horretarako, zuhaitzaren adarra goitik behera ebaki behar da eta mentatu nahi den zuhaitzaren egur zatia bertan sartu. Udaberrian egiten dira mentak.

56. Zozoak mahastietan (ZAL-012/033)

Mahatsak eguzki-begian jartzen ziren. Eurenean zozo mordoa ibiltzen zen eta mahatsak batzen joaten zirenean ehiztariek tiroa emango zieten beldur izaten ziren. Lehen ehizan asko ibiltzen ziren, batez ere eibartarrak.

57. Erremedioak: iodo-belarra, zainbelarra, enplastuak eta bizio-belarrak (ZAL-012/036)

Urratuak egiten zituztenean iodo-belarra erabiltzen zuten eta zaldarrentzat kipula enplastuak. Eztarrirako, zainbelarra sikatzen zuten, egosi eta gargarak egiten zituzten bere urarekin. Umetan bizioak edukitzen zituztenean, bizio-belarraren ura hartzen zuten edo koñaka.

58. Erremedioak: olio epela, erre-belarrak eta mantzanila (ZAL-012/037)

Belarriko minentzat olio epela erabiltzen zuten eta kalenturarako aspirinak ere beti eduki izan dituzte etxean. Erredurentzat erre-belarrekin egiten zuten enplastua edo Elorrioko mojen pomada erabiltzen zuten. Mantzanila ere beti batu izan dute tripalenzat eta neska batzuek ginebra ere hartzen zuten hilerokoaren minentzat.

59. Umeen gaixotasunak: elgorria eta meningitisa (ZAL-012/038)

Umeek elgorria zeukatenean manta mordoa jartzen zieten gainean. Pazko egunean-eta prozesioak egiten zituzten eta urte horretan komunioa egiten zutenak aingeru janzen ziren. Isabelek orduan pasatu zuen elgorria, aingeru janzteko zenean. Meningitisa ere pasatzen zuten ume batzuek.

60. "San Juan, San Juan, arrautza bi kolkuen" (ZAL-012/039)

San Juan bezperan afari-merienda egiten dute eta gero San Juan sua. "San Juan, San Juan, arrautza bi kolkuen..." kantatzen dute suaren inguruan. San Juan egunean txorta bat ("sorbie") egiten zuten, elizan bedeinkatu eta hurrengo urtean erretzeko uzten zuten. Ateetan lizar erramak jartzen zituzten.

61. Erramu Egunean sahatsez egindako gurutzeak (ZAL-012/040)

Erramu Egunean sahatsez egindako gurutzeak bedeinkatzen zituzten elizan. Gero gurutzeok sahatsoaren azalarekin berarekin lotzen zituzten soro bazterretan.

62. Errogatibak ermitetan (ZAL-012/043)

Lantzean ermita baten meza esaten zen eta errogatibak egiten zituzten bertan.

63. Sermoia, dotrina eta etxeko otoitzak euskaraz (ZAL-012/045)

Domeketan goizeko hamarretako mezara joaten ziren umetan; nagusitan, zazpietakora. Orduan latinez izaten ziren mezak eta sermoiak euskaraz. Parrokoak dotrina euskaraz erakusten zien, baina laguntzaileak erdaraz. Etxean ikasten zituzten otoitzak ere euskaraz izaten ziren.

64. Abadeari berorika, gurasoei zuka eta neba-arreben artean hiketa (ZAL-012/046)

Abadeari berori esaten zioten, baina eurek inoiz zuka ere bai. Etxeko nagusiei zuka egiten zieten. Neba-arrebek beti egin izan dute hiketan eta auzokoen artean ere bai. Gurasoek ere hiketan egiten zieten seme-alabei.

65. Bijilia egunetan okelarik ez (ZAL-012/048)

Aste Santuko barikuetan bijilia egiten zuten eta baba zuria eta bakailaoa jaten zituzten. Gainerako barikuetan okela jan ahal izateko, buldak erosi behar izaten zituzten elizan.

66. Barau Bariku Santuan eta komunioa hartzeko (ZAL-012/050)

Bariku Santu egunean barau egiten zuten: baso bete esne baino ez eguerdira arte. Komunioa hartzeko ere baraurik egon behar izaten zuten, urik ere ezin izaten zuten edan.

67. Abadeak eta udaletxeko sekretarioa euskaldunak (ZAL-012/051)

Lehengo abadeak euskaldunak izaten ziren eta baita udaletxeko beharginak ere, sekretarioa behintzat. Eskolan beti erdaraz egiten zuten eta horregatik lagunen artean ere sarri egiten zuten erdara.

68. Santamañezar mendia (ZAL-012/052)

Eskola bakarra egon izan da Zaldibarren. Santamañezar da Zaldibarreko mendi bakarra eta erreka pare bat ere baditu.

69. Bainuetxea gero sanatorio bihurtu zen (ZAL-012/054)

Ama gaztea izan zenean bainuetxea egon zen herrian, baina gero sanatorio bihurtu zuten. Euren aitita bainuetxeko lorezaina izan zen.

70. Baserriaren jabetza (ZAL-013/002)

Joseren baserria beti izan da euren, baina aititak erditik zatitu behar izan zuen dotea emateko. Juanen familiak, oster, baserria galdu egin zuen eskriturak erre eta haserrea eduki zutelako aitaren lehengusuarekin.

71. Balio handiko eskopetak Eibarren (ZAL-013/004)

Ehizarako eskopetak egiten zituzten Juanen lantokian. Burdina eta egurra ziren orduan erabiltzen zituzten materialak. Eskopeta onak egiten zituzten, balio handikoak, inoiz Printzeari oparitzeko ere bai.

72. Salamancara eperretan eta usotan (ZAL-013/005)

Hiru-lau baserritar batzen ziren ehizan joateko. Salamancara joaten ziren eperretan eta usotan. Eibartik ere jende asko joaten zen. Orduan merkeagoa zen ehizan ibiltzea.

73. Ehiza-barrutiak (ZAL-013/006)

Ehiza-barrutiak egoten dira ehiztarientzat, baina dirua eduki behar da horietarako. Hala ere, lehen merkeagoak ziren eta ehiza elkarteek hartzen zituzten.

74. Ehiza-txakurrak (ZAL-013/009)

Biek eduki izan dute txakurra ehizarako. Juanek, esaterako, 'txinbero' esaten dioten horietako bat eduki zuen. Hala ere, onenak pixka bat handiagoak direnak izaten dira. Orain diru asko gastatu behar da ehizan, dirudunak ibiltzen dira.

75. Hegaberak, kalandriak eta birigarroak gutxitu eta zozoa ugaritu (ZAL-013/011)

Orain ez dago labrantzarik eta horregatik ez da hegaberarik ikusten. Kalandriarik ere ez da jada ikusten inguruan. Udagoienean eta Aste Santuan mordoa pasatzen ziren lehen. Zozoa, ostera, ugaritu egin da, baina birigarroa gutxitu.

76. Elaia sakratua zen eta kukuak dirua zekarren (ZAL-013/012)

Elaia sakratua zela esaten zuen, erlijio sineskerak zirela eta. Kukua dela eta, ostera, lehenengoz bere kantua entzuten denean aldean dirua eduki behar dela esaten zuten.

77. Mutikotan txori-habiak topatzen (ZAL-013/013)

Mutikotan txori-habiak topatzen ibiltzen ziren. Behin, okilaren kumeak hartu eta Juanen amak prestatu zituen. Juanek ezin izan zituen jan, inurri zaporea zuten eta.

78. Mutikotan harrika Goierrikoak Gatzagakoen kontra (ZAL-013/014)

Garizuman txirinkilan egiten zuten mutikoek, zeinek urrunago bota makila. Bestelako egunetan gerrak egiten zituzten, Goierri Gatzagaren kontra, harrika. Behin, harrikada jaso zuen Josek buruan.

79. Pilotan ortozik eta etxeko pilotekin (ZAL-013/015)

Batzuetan ortozik egiten zuten mutikoek pilotan, abarketak ez apurtzeko. Pilotak ere mutikoek eurek egiten zituzten jertse zaharrekin. Futboleak ibiltzeko, ostera, harriekin markatzen zituzten porteriak.

80. Abadea gogorra (ZAL-013/016)

Domeka arratsaldeetan dotrinara joan behar izaten zuten eta astean bitan abadea joaten zitzaien eskolara. Don Bruno abadea gogorra zen mutikoekin, domekan mezara ez joatearren gogor egiten zien.

81. Euskararen kontrako maisua (ZAL-013/017)

Maisu ona izan zen Don Victor, baina txarrak ere eduki izan dituzte. Batek, esaterako, txapa bat jartzen zion euskaraz egiten zuenari. Sarritan, urtean maisu bat baino gehiago edukitzen zuten.

82. Eskolako finenak Eibarko Armagintza Eskolara (ZAL-013/020)

Liburu bakarra erabiltzen zuten eskolan, arbela, arkatza eta luma. Eskolako mutirik finenak Eibarko Armagintza Eskolan hasi ziren gero. Bartzelonara joan behar izaten zuten azterketak pasatzera.

83. Bolo txapelketak (ZAL-013/025)

Beti egon izan da bolatokia herrian, tren-geltokian esaterako. Helburua bola zuzen jaurtitzea zen amaieran zeuden hiru txirloak botatzeko. Jaietan txapelketak egiten zituzten eta irabazleak saria edukitzen zuen.

84. San Esteban eguneko idi-probak (ZAL-013/026)

San Esteban egunean idi-probak antolatzen zituzten herrian. Pisu librean egiten ziren eta ordu erdian zeinek gehiago ibili saritzen zuten. Apustuak egiteko zaletasun handia zegoen orduan eta baita beste herri batzuetako probetara joateko ere.

85. Santa Marinako asto probak (ZAL-013/027)

Urtero egiten dituzte asto-probak Santa Marinan. Astoen harria 500 kilokoa izaten da. Aizkolariak ere ekarri izan dituzte herriko jaietara. Harriak jasotzeko, oster, Mallabian eduki izan dute zaletasun handiagoa.

86. Ganadu feriak (ZAL-013/028)

San Esteban egun inguruan egiten zuten ganadu feria Zaldibarren. Abadiñon urtean behin antolatzen zuten, baina Begoñako feriara joateko ohitura gehiago zuten. Hilean baten Elgoibarren egiten da oraindik ere.

87. Jeneroen kontrola Olarreagan (ZAL-013/029)

Mutiko zirenean, probintzia batetik bestera zein jenero pasatzen zuten kontrolatzen zuten Olarreagan.

88. Tratanteek ospe txarra (ZAL-013/033)

Tratanteek ospe txarra edukitzen zuten. Tratua egin ostean, tabernara joaten ziren baserritarrak eta egindako tratuaren inguruan ibiltzen ziren berbaz. Sarri ikusten zuten tratanteek ez zituztela tratu garbiak egiten.

89. Hamasei urte zituela debuta Gasteizen (ZAL-014/002)

Pedro elizaren ondoan bizi zen eta egunero ibiltzen zen pilotan elizpean. Hamasei urter zituela jokatu zuen lehenengo partidua Gasteizen, eskuz eskukoa. Hurrengo domekan Eibarren jokatu zuen eta tren berezia jarri zuten Zaldibartik partidua ikusten joateko. Jarraian, hainbat partidu jokatu zituen.

90. Hamazortzi urte zituela profesional (ZAL-014/003)

Hamazortzi urte zituela egin zen pilotari profesional, Santa Krutz egunean Legazpin. Hala ere, ez da inoiz beren-beregi pilotara dedikatu, pentsuen almazena eta tailerra ere eduki zituen eta. 34 urte zituela utzi zion pilotan jokatzeari.

91. Partiduko berderatzi mila pezeta (ZAL-014/004)

Alderatuz gero, orduan orain baino gehiago irabazten zuten pilotariek. Urtean ehun bat partidu jokatzeko zuten eta bederatzi mila pezetan irabazten zuten partiduko.

92. Sasoiko pilotariak (ZAL-014/005)

Gallastegi izan zen bere sasoiko pilotaririk onena. Ogeta, Garzia Ariño, Gorostiza eta Azkarate ere oso onak izan ziren. Atanotarrekin ere jokatu izan du Pedrok, nahiz eta zaharragoak izan.

93. Egunean 5.50 pezeta tornulari ikasten zebilela (ZAL-014/009)

Hamalau urte zituela tellerian hasi zen, tornulari ikasten. Egunean 5.50 pezeta irabazten zuen. Hilean mila pezeta inguru irabazten ziren orduan.

94. Trenez eta autobusez partiduetara (ZAL-014/013)

Herrian Josepak eta Artamendik zuten telefonoa. Horra bidaltzen zizkion enpresak telegramak Pedrori. Halaxe jakiten zuen non eta noiz jokatu behar zuen. Trenez edo autobusez joaten zen partiduetara. Mirandara eta Logroñora ere halaxe joaten zen.

95. Astero jokatzten ziren partiduak (ZAL-014/014)

Logroñon ia astero jokatzten ziren partiduak eta Gasteizen hamabosterik behin. Eguaztenean eta zapatuan Bergaran jokatzten zuten eta egunean eta domekan Eibarren.

96. Frontoien izenak (ZAL-014/015)

Bergaran "Frontón Bergara" zegoen, Eibarren "Astelena", Gasteizen "Vitoriano" eta Zarautzen "Bombonera". Bizkaian Sestaon eta Barakaldon jokatzten zuten. Orain, Bilbon frontoi itzela egin dute, baina lehen "Deportivo"-n jokatzten zuten.

97. Lehengo enpresak (ZAL-014/018)

"Empresas Unidas", "Bidarte" eta "Euskalari" ziren orduko enpresak. Orain "Aspe" eta "Asegarce" daude.

98. Lehen pilotariak zuri janzten ziren (ZAL-014/020)

Zuri janzten ziren orduan pilotariak eta gerriko gorria edo urdina jartzen zuten. Pedroren sasoian, hasieran abarketekin jokatzten zuten, baina gero gomazko zapatilak erabiltzen hasi ziren. Eskuetan esparatrapua jartzen zuten.

99. Partiduko kobratzen zuten (ZAL-014/021)

Pilotariek ez zeukaten soldatarik, jokatzten zutenean kobratzen zuten. Kopuru bera irabazten zuten beti, partidua galdu nahiz irabazi.

100. Lehen txapelketa gutxiago (ZAL-014/022)

Lehen txapelketa gutxiago jokatzten zen: lau t'erdikoa eta bi birik jokatzten zuten. Eskuz eskukoa urte birik behin egiten zen. Orain askoz txapelketa gehiago egiten dira eta partidu normal gutxiago dago lehen baino.

101. Sarrera bost ogerleko (ZAL-014/023)

Lehen ere ordaindu behar izaten zen sarrera frontoian partidua ikusteko. Hala ere, gaur baino merkeagoa zen: bost ogerleko inguru.

102. Inoiz partidu bi egunean (ZAL-014/024)

Partiduak arratsaldean edo iluntzean izaten ziren. Herriko jaietan, ostera, gehienetan goizean jokatzeko zen. Inoiz egunean partidu bi ere jokatzeko zituzten pilotariek.

103. Eskueta minerako ur beroa gatzarekin eta binagrearekin (ZAL-014/025)

Eskuak minduta zituztenean, ura berotu eta gatz eta binagrea botatzen zioten. Bertan sartu behar izaten zituzten eskuak eta gero izotzetan. Eskuak makila batekin jotzen zituzten gogortzeko.

104. Partidua geratu angeluserako (ZAL-014/028)

Goizean jokatzeko zutenean, partidua geratu egin behar izaten zuten angelusa errezatzeko.

105. Andre raketistak Madrilen (ZAL-014/030)

Andreek raketan jokatzeko zuten Madrilen, "Frontón Madrid" izenekoan. Pilotariak ikusten andreak ere joaten ziren, baina gizonak gehiago. Apustueta, ostera, gizonak bakarrik ibiltzen ziren.

106. Lehen hiru epaile (ZAL-014/033)

Hiru epaile zeuden Pedoren gazte sasoiak: aurrean, erdian eta atzean. Orain bi daude. Lehen enpresek jartzen zituzten, orain federazioak. Beti ezagutu du federazioa.

107. Txapelketa aurretik pilotak aukeratu (ZAL-014/036)

Txapelketa aurretik pilotak aukeratu egin behar izaten zituzten, orain egiten den moduan. Hiru-lau egun lehenago egiten zuten.

108. Araudia eta piloten materiala aldatu egin da (ZAL-014/037)

Araudia aldatu egin dute pilotaren pisua dela eta, orain erabiltzen diren materialak ezberdinak direlako. Pilotak barrenean kanika bat edukitzen du, kanpoan goma eta azkenik artilea.

109. Lehen sake librea (ZAL-014/038)

Lehen sake librean jokatzeko zuten eta gero pasatu zuten hirura. Neurriari begira, frontoi guztiak ez dira berdinak.

110. Pedro Zaldibarko lehen pilotaria (ZAL-014/039)

Etxekoak pozik agertu ziren Pedro pilotan hasi zenean. Bera izan zen lehenengo pilotaria Zaldibarren. Herri osoa joaten zen Pedoren partiduetara.

111. Umetan baserriko beharrak (ZAL-014/040)

Beti egin izan ditu baserriko beharrak, pilotan zebilean ere bai. Mutikotan, esaterako, itaurrean egiten zuen. Eskolara gutxi joaten zen. Herriko eskolan ibili zen Pedro.

112. Eskolatik irten eta tornulari Zumarragarenean (ZAL-014/041)

Hamalau urte zituela eskolatik irten eta tornulari ikastera joan zen. Zumarragarenean ibili zen, makinak egiten.

113. Maisua falta eskolan (ZAL-014/042)

Sarritan maisurik ere ez zuten edukitzen eskolan. Gainera, askotan aldatzen zituzten maisuak. Inoiz maistrak ere eduki zituzten.

114. Eskolan erdaraz, etxean euskaraz (ZAL-014/044)

Eskolan erdaraz egiten zuten, baina etxean sekula ere ez. Zaldibartar guztiek egiten zuten euskaraz orduan.

115. Basora eskolara ordeztu (ZAL-014/046)

Neguan sarriago joaten ziren eskolara. Eskola sasiak egiten zituztenean basora joaten ziren fruta batzera.

116. Pistoletarako torlojuak egiten zituen aitak (ZAL-016/004)

Eizagako zentralako lanarekin batera, pistoletarako torlojuak egiteko tailerra jarri zuen aitak. Orduan, gerra aurrean, arma asko egiten zen Eibarren. Gerra aurretik Olarreagara mugitu ziren, baina han ere torlojuak egiten jarraitu zuen aitak. Eibartik hurbilago egon ziren Olarreagara mugitu zirenean, gurdiarekin materialak eraman ahal izateko.

117. Olarreagako ur-jauzia makinak mugitzeko (ZAL-016/005)

Olarreagako ur-jauzia aprobetxatzen zuten torlojuak egiteko makina martxan jartzeko. Burdinarekin, letoiarekin eta aluminioarekin egiten zuten lan. Hiru-lau metroko piezetatik abiatuta, behar zituzten neurrietako torlojuak ateratzen zituzten.

118. Torlojuak urrezko txanponetan ordaindu (ZAL-016/006)

Dena saltzen zuten Eibar ingurura. Inoiz urrezko txanponetan ere ordaindu izan diote aitari. Etxean gordeta eduki zuten urrea, harik eta lapurrak sartu zitzaizkien arte.

119. Elgetako Urbedeinkatu baserrian ebakuatuta (ZAL-016/008)

Gerra sasoian, Zipriano Elgetan egon zen. Urbedeinkatu baserrira ebakuatuta zituzten, orain presa dagoen lekura. Urritik apirilera egon ziren bertan. Aita Olarreagan egon zen, beharrean.

120. Elgetako bonbardaketak eta erasoak (ZAL-016/009)

Ziprianok Elgetan ikusi zuen lehen bonbardaketa urriaren azkenengo egunetan izan zen, orduantxe Elgetako Asentsion egon zen frontea eta. Behin, txori-habiak topatzen zeudela, francotarrak eurak ametrailatzen ahalegindu ziren. Mairuak ere baziren bertan, Francoren alde borrokatzen.

121. Babeslekua ur-jauziaren azpian (ZAL-016/011)

Eibar egunero bonbardatzen zuten eta egunero hiltzen zen jende ezaguna. Euren etxean, Olarreagan, ur-jauzia dagoen lekuan eraiki zuten babeslekua.

122. Gerra sasoiko errazionamendua (ZAL-016/013)

Gerra sasoian, ebakuatuta egon zirenean, gorriek ematen zieten errazionamendua. Gero etorri zen Francoren errazionamendua, latzagoa.

123. Eibar hutsik Franco sartu zenean (ZAL-016/015)

Franco Eibarren sartu zenean, Ziprianoren aita koinatuaren bila joan zen Eibarrera, ez zen etxean ageri eta. Egun horretan zazpi pertsona baino ez zituen ikusi Eibarko kaleetan. Batzuek hanka egin zuten eta enpresak ere Bilbo aldera mugitu behar izan ziren.

124. Olarreaga, Sallabente eta Eitzagako biztanleen bizimodua (ZAL-016/016)

Olarreaga Eibarren eta Ermuaren artean dago. Inguruan Sallabente eta Eitzaga daude. Ziprianoren auzokoek ez dute hartu-emanik eduki Zaldibarrekin, hilean behin baino ez ziren joaten kontribuzioa ordaintzera eta. Elizara Ermura joaten ziren eta bizimodua Eibarren egiten zuten.

125. Zaldibarko txistulariak San Lorentzoko jaietan (ZAL-016/017)

Auzoan eskola eduki zuten eta baita ermita bi ere: San Lorentzo, Olarreagakoena eta Sallabentekoena; eta San Pedro, Eizagakoena. San Lorentzo egunean jaia egiten zuten eta udaletxeko aguazila eta txistulariak etortzen ziren. Bertan egiten zuten bazkaria eta gero etxerik etxe ibiltzen ziren txistua jotzen. Arratsaldean erromeria egiten zuten.

126. Eibarrera meza nagusira (ZAL-016/018)

Gerraostean auzoa asko handitu zen eta orduan hasi ziren domeketan ermitan meza esaten. Zipriano beti joan izan da Eibarrera mezara. Meza nagusira joaten zen, ordubeteko meza, fraideekin.

127. Elgetako gerra aurreko eskolan euskaraz (ZAL-016/020)

Umetako urteak Elgetan eman zituen aiton-amonekin. Herri txikia izanagatik, eskola ona zegoen Elgetan; bertako seme batek diru mordoa utzi baitzuen eskolarako. Mojak eta maisua eduki zituzten bertan. Zipriano gerra aurrean ibili zen Elgetako eskolan eta orduan euskaraz ikasten zuten.

128. Aitonaren gaztetako ibilerak (ZAL-016/023)

Aitona hamabost urte zituela irten zen etxetik behar egiteko: lehenengo, Elgoibartik Azkoitirako zubia eraikitzen ibili zen; gero, Olarreagako harrobian; handik Bilbora joan zen Derioko kanposantura beharrean; gero, Avileseko harrobira. Ezkondu ostean, baserrian ibili zen beharrean.

129. Oinarrizko jatekoak: taloa eta ogia (ZAL-016/026)

Ziprianori asko gustatzen ei zitzaizkion amonak egiten zituen taloak. Gehienetan goizean jaten zuten taloa, esnearekin. Batzuetan urdaiarekin ere

hartzen zuten. Ogia ere jaten zuten, aste osorako egiten zuten eta. Baserri bakoitzak bere labea eduki zuen.

130. Basora pago eta ira bila (ZAL-016/027)

Labea pagoarekin berotzen zuten. Urte guztian egurra edukitzeko, basora joaten ziren pagoak inausten. Idiak uztartu eta gurdiaekin abiatzen ziren basoko-beharrok egitera. Irak ere horrelaxe batzen zituzten, San Migel inguruan. Baso gehienak jabedunak izan ohi ziren orduan.

131. Olarreagan urik ez; Elgetan, ostera, bai (ZAL-016/031)

Zipriano umea zela ekarri zuten ura Elgetara; Olarreagan, ostera, geroago. Garbiketarako eta lapikorako erreka ura ekartzen zuten eta edateko iturrikoa. Emakumeak erreka joaten ziren arropak garbitzera, hura emakumeen beharra zen eta.

132. Gerraosteko eskola (ZAL-016/033)

Gerraostean ez zuten maisurik eduki, eskola zeozer zeukan bat jarri zuten maisutzat. Orduan zigor gogorrak edukitzen zituzten. Aldaketa asko egon zen eskolan gerraostean.

133. Bizikleta lanera joateko (ZAL-016/036)

Lehen dena egiten zuten oinez. Bizikletak ere bazeuden orduan, baina gutxi. Batez ere, langileek erabiltzen zituzten lanera joateko.

134. Astean sei egun beharrean eta oporrik ez (ZAL-016/038)

Lanean hasi zirenean domeka baino ez zuten libre izaten. Hasieran ez zeukaten oporrak hartzeko aukerarik ere; gero sei egun hartzeko eskubidea eman zuten. Gabon zaharretako arratsaldea jai hartzen zuten Elgoibarko feriara joateko.

135. Lanegun eta aste luzeak (ZAL-016/039)

Lehen egun osoa ematen zuten lanean, iluntzeko zortziak arte. Hamabietatik ordu bata eta erdiak arte edukitzen zuten bazkaltzeko tartea. Igandea baino ez zuten libre izaten eta Eibarko erromeriara joateko aprobeztatzen zuten. Udan, ostegunetan ere egiten zuten erromeria Eibarren.

136. Egunean zortzi pezeta irabazten zituen (ZAL-016/040)

Egunean zortzi pezeta irabazten zituen Ziprianok lanean hasi zenean. Hamabost egunerik behin kobratzen zuten eta erdia amari eman behar izaten zion. Soldadutzara joateko utzi behar izan zuen lana.

137. Soldadutzan instrukzio gogorrak (ZAL-016/042)

Soldadutzan guardiak egin behar izaten zituzten eta baita instrukzioak ere. Instrukzioak egin eta hile bira banderaren zina egin behar izaten zuten. Bilbo inguruko jende asko egon zen soldadutzan Ziprianorekin batera. Kapitan gogorra eduki zuten.

138. Mugako zaintzaileak, "zeladoreak" (ZAL-016/045)

Olarreagan Bizkaitik Gipuzkoarako muga zaintzaileak egon ziren, "Zeladoreak". Zergak kobratzen zizkieten alde batetik bestera jeneroarekin

pasatzen ziren kamioiei. Batez ere, edariak pasatzeagaitik ordaindu behar izaten zuten.

139. Etxeetan ardoa eta "agua ardiente" (ZAL-016/047)

Ardoa zahagian erosten zuten. Bertan berrogeita hamar litrotik gora edukitzen zituzten. Euren egunero edaten zuten ardoa. Edarien artean, "agua ardiente" esaten zitzaiona ere etxe guztietan edukitzen zuten. Normalean, gizonak baino ez zuten edaten.

140. Jaietan boloetan egiteko zaletasun handia (ZAL-016/048)

Orduan herri guztietan zeuden bolatokiak eta zaletasun handia zegoen jaietan bolotan jokatzeko. Apustuak honela egiten zituzten: "batian parra, bi baietz" edo "bixan parra, hiru baietz". Hiru txirlorakin jokatzen zuten.

141. Domeketan kartetan egiteko batu (ZAL-016/050)

Domeketan, kartetan egiten zuten emakumeak eta baita gizon zaharrek ere. Etxeren batean batzen ziren eta dirua jokatzea gustatzen zitzaienten, txakur txikiren bat edo. Gizonak trukean edo musean egiten zuten eta emakumeak briskan edo puntuan.

142. Meza ostean, gizonak tabernara eta emakumeak etxera (ZAL-016/051)

Meza nagusiaren ostean, gizonak tabernara joaten ziren gailetaren bat eta ardo zuria hartzera. Emakumeak, osterara, lehenengo orduan joaten ziren mezara eta gero etxera bazkaria prestatzera. Garbantzak eta "salda garbixe" prestatzen zituzten domeketan jateko. Euren etxean beti edukitzen zuten postrearen bat.

143. Munizioa, eskuko bonbak eta obusak inguruan (ZAL-016/054)

Gerra sasoiaren mutikoek munizioa batzen zuten basoan eta igandeetan su ematen zioten bide bazterrean. Sasoi hartan jende mordoa hil zen eskuko bonbak zirela eta; bidean topatu, hartu eta eskuetan lehertzen zitzaizkien. Obusak ere askotan aurkitzen zituzten, euren baserri inguruan esaterako.

144. Olarreagako Manolo kaboa (ZAL-016/056)

Olarreagan, Manolo izeneko kaboa egon zen Gipuzkoako fiatoan. Honek goiko baserriko estrata ixteko agindua eman zuen eta honela berak baino ez zituen bertako arrautzak hartzen. Hasieran gorriekin egon zen Manolo kaboa eta gero Francoren aldekoekin.

145. Munizioa trintxeretara gauez eramaten (ZAL-016/057)

Milizianoek baserritarrei kentzen zizkieten jana eta ganaduak. Eurei, esaterako, asto bat kendu zieten. Euren osaba gauetan munizioa trintxeretara eramaten ibiltzen zen idiekin. Behin, etxera heltzen zegoela, idia hil zioten tiroa botata.

146. Gari-jotzea (ZAL-017/008)

Garia moztu eta txortak egiten zituzten. Gero eguzkitan sikatzen ziren eta losen kontra jotzen zituzten. Gizonen beharra izaten zen hau; andreana,

ostera, garia ondora eramatea eta ura edo sangria gizonei ekartzea. Auzokoen artean egiten zuten gari-jotzea. Gero, garia jotzeko makina ekarri zuen auzoko batek.

147. Sabaian belarrak eta "kamaran" jatekoak (ZAL-017/009)

Sabaian lastoa eta belarra gordetzen zuten ganaduei neguan emateko. "Kamaran" (ganbaran), ostera, kipulak, sagarrak eta artoa gordetzen zituzten. Belarra udan mozten zuten.

148. Udaberrian eta neguan ereiten direnak (ZAL-017/010)

Sekula-belarra, ailorbea eta alpapa udaberrian ereiten zituzten, artoa eta babarekin batera. Sasoi honetan tomateak, piperrak eta lekak ere jartzen dira; neguan, ostera, berakatza, ilarra eta baba-beltza jartzen dira. Koinatak azken hauek ereiteko egunik onena urriaren 22a zela zioen.

149. Loredun landareak ilberrian erein, gainontzekoak ilbeheran (ZAL-017/011)

Loredun landareak ilberrian ereinez gero, lore gehiago ematen ei dute. Ilbeheran, ostera, porrua, aza eta letxuga modukoak ereiten dira, zilik irten ez dakien.

150. Landareak ateratzeko haziak etxean erein (ZAL-017/012)

Gaur egun arrandegiko kutxak erabiltzen dituzte haziak ereiteko. Lehen lur zati bat edukitzen zuten behar horretarako. Etxeko hazia telazko poltsa batean gordetzen da eta urte bian ere ematen du.

151. Etxean esne-behiak eta garia urte osorako (ZAL-017/014)

Inguruan ez dira artzainak egon. Baserri batzuetan ahuntzak edukitzen zituzten aumak etxean jateko. Eurenean, ostera, esne-behiak edukitzen zituzten, esnea saltzen zuten eta. Garia ere urte osorako edukitzen zuten, errenta garitan baino dirutan ordaintzen zutelako.

152. Gerra sasoian errota bakarra zabalik herrian (ZAL-017/015)

Garia zurezko arketan gordetzen zuten errotara eramanez aurretik. Aitita-amamek errota eduki zuten Berrizen. Gerra sasoian errotak itxi egin zituzten eta Zaldibarren bakarra utzi zuten, Eizagan.

153. Errotaren funtzionamendua (ZAL-017/016)

Errekako ura antaparara ekartzen zuten gero errotara sartzeko. Errotarriak bueltaka-bueltaka egoten ziren eta apurka-apurka bertara jausten zen garia edo artoa. Irina aska batera jausten zen. Batez ere neguan egiten ziren errotako beharrak eta orduan ez zegoen ur faltarik. "Belakurtu" zen aitita-amamen errotaren izena.

154. Bariku Santuan errota martxan jarri eta ume bat ito (ZAL-017/018)

Garia eta artoa zakuetan eramaten zuten errotara eta irina ere bertan ekartzen zuten. Bariku Santu egunean ez zen sekula martxan jartzen errota. Behin jarri zuten eta ume bat ito zitzaien bertan. Zigorra izan zela pentsatzen zuen aitatak.

155. Errotariari irinetan ordaintzen zitzaion (ZAL-017/020)

Errotariak kilo bakoitzeko honenbeste gramo kentzen zituen bere lanaren truke. Errotariak gero etxerako aprobetxatzen zuen irina; ogiak, taloak eta morokilak egiteko.

156. Umeak beste andre baten bularrarekin hazi (ZAL-017/021)

Askotan gertatzen zen ama erditzerakoan odolustea edo hiltzea eta umea besteren batek hazi behar izaten zuen. Orduan bularrarekin hazten ziren ume guztiak. Batzuek beste ume batzuei ematen zieten bularra diru truke.

157. Erditzeak etxean (ZAL-017/022)

Lehen umeak etxean edukitzen zituzten. Emagina Durangotik etortzen zen, baina bertoko praktikanteak ere laguntzen zion erditzeetan. Korrika joan behar izaten zuten medikuari abisua ematen, ez zegoen telefonorik eta.

158. Emagina erditzeetan laguntzen (ZAL-017/024)

Erditzeetarako ura berotzen jartzeko esaten zuen emaginak. Plazenta bota artean bertan geratzen zen emagina, barruan geratzea arriskutsua zen eta.

159. Jaiotzean umea bero-berotan jarri (ZAL-017/025)

Jaio eta segituan umea jantzi egiten zuten eta kuman jartzen zuten, ondoan ur beroz betetako botilak zituela. Arriskutsuena, jaiotzean umeak beroa galtzea izaten da.

160. Ume jaioberrien arropak (ZAL-017/027)

Umeari lehenengo telazko kamiseta bat jartzen zioten eta gainean puntuzko jertsetxo bat. Gero ume-izarak jartzen zitzaizkion eta gainean "muletoia" batzen zitzaion faxa batekin. Ondo-ondo batu behar dira ume jaioberriak.

161. Egurrezko kumak eta arta-malutazko koltxoiak (ZAL-017/029)

Baserrian egurrezko kumak eduki zituzten. Gero zimentzezkoak etorri ziren. Lehengo koltxoiak arta-malutez egindakoak izaten ziren.

162. Bataioa eta elizara sartzea (ZAL-017/030)

Umea jaio eta hurrengo egunean bataiatzen zuten. Amak ezin izan zuen bataiora joan. Gero, berrogei egunera, amak umearekin joan behar izaten zuen elizan sartzera.

163. Umea txarto jaioz gero etxe-bataioak (ZAL-017/032)

Umea txarto jaiotzen zenean praktikanteak etxe-bataioa egiten zuen, badaezpada. Ez zitzaion izenik jartzen. Umea hilez gero, ez zuten elizara eramaten, baina lurperatu egiten zuten.

164. Askotan santuen izenak umeei (ZAL-017/033)

Lehen izenak erdaraz jarri behar izaten ziren. Askotan santuen izenak jartzen zitzaizkien umeei.

165. Baserrian pinuak eta fruta-arbolak (ZAL-018/004)

Baserrian patata, baba, artoa eta garia hartzen zuten; baina batez ere fruta-arbolak eta pinuak eduki zituzten.

166. Etxeko abereak etxekoentzako jana edukitzeko (ZAL-018/007)

Behiak, untxiak, oiloak eta txerria etxerako edukitzen zituzten. Morroiei eta etortzen ziren beharginei ere jaten eman behar izaten zieten eta eurak ere asko ziren etxean: morroiak, osaba ezkonbakoak, gurasoak eta neba-arrebak. Gainera, nebarik zaharrena etxera ezkondu zen eta bertan hiru seme-alaba izan zituen. Felisaren gazte sasoian idiak ere eduki zituzten beharrerako.

167. Etxearen egitura (ZAL-018/009)

Etxean, behean korta eduki zuten, gainean ezkaratza eta gela esaten ziotena. Sarrera moduko bat ere eduki zuten gurdia-eta gordetzeko. Goian logelak egon ziren eta gero ganbara patatak eta sagarrak moduko jatekoak gordetzeko.

168. Sagardoa eta txakolina etxean egiten (ZAL-018/010)

Sagardoa eta txakolina etxean egiten zuten, horretarako makina eduki zuten eta. Barrikak eta botilak txabola batean gordetzen zituzten. Egunero edateko egiten zuten bai sagardoa eta bai txakolina; ardoa, ostera, jai egunetan. Ardoa etxerik etxe saltzen ibiltzen zirenean erosten zieten.

169. Kinkilaria etortzen zen Durangotik (ZAL-018/012)

Kinkilaria ere etortzen zen Durangotik Zaldibarrera hariak, oihalak, botoiak eta toallak saltzera. Orduan, etxean egiten zuten arropa asko, baina jostunak ere bazeuden.

170. Erromeria udan eta idi-probak San Estebanetan (ZAL-018/014)

Zaldibarren udako San Andresak ospatzen dituzte uztailen. Felisaren sasoian erromeria egiten zuten jaietan eta idi-probak San Esteban egunean.

171. Jaietan meza, dantzariak eta erromeria (ZAL-018/017)

Herriko jaietan, mezara joaten ziren. Meza ostean dantzariak ikusten zituzten eta iluntzean erromeria. Lehen, dantza talde bi zeuden herrian: umeena eta nagusiena. Orain bertso-afaria ere egiten da Goierrin, baina lehen ez zegoen horrelakorik.

172. Erdaraz eskolan, lagunartean eta udaletxekoekin (ZAL-018/021)

Lehen erdara asko egiten zen herrian. Eurek ere erdaraz egiten zuten eskolan eta lagunartean, baina etxean euskaraz. Dotrina euskaraz ikasi zuten, abadeak euskaldunak ziren eta. Udaletxekoak euskaldunak ziren, bertakoak, baina erdaraz egiten zuten.

173. Eskolan maistra bilbotarra (ZAL-018/022)

Eskolan banatuta egon ziren neskak eta mutilak. Eurek maistra eduki zuten, bilbotarra. Ez zen oso gogorra, baina zigorrak edukitzen zituzten euskaraz berba egitearren.

174. Komunioa marinel jantzita (ZAL-018/025)

Dotrina eskolan eta elizan ikasten zuten. Batzuk zuri jantzita egiten zuten komunioa, baina berak marinel jantzita egin zuen. Gero, etxean egiten zuten bazkaria familiarekin.

175. Gorpuzti egunean eta Aste Santuan prozesioa (ZAL-018/029)

Gorpuzti egunean eta Aste Santuan prozesioa egiten zuten. Gurutzea, Ama Birjina eta San Juan ateratzen zituzten.

176. Letaniak euria eskatzeko (ZAL-018/030)

Lehortea zegoenean, ermitetara joaten ziren eta letaniak esaten zituzten euria eskatzeko.

177. Aste Santu eta Garizumako debekuak (ZAL-018/031)

Garizuman eta Aste Santuan ez zegoen erromeriarik eta zinera joaten ziren sarritan. Eguen Santu eta Bariku Santu egunetan ez ziren mutilarekin irteten. Hautsen Egunean eta Bariku Santuan ezin izaten zuten okelarik jan.

178. Misioak Aste Santu aurretik (ZAL-018/035)

Aste Santu aurretik kanpoko fraideak etortzen ziren sermoiak egitera. Sermoi gogorrak egiten zituzten.

179. Erromerietan mutilak hurbildu neskengana (ZAL-018/037)

Eskola amaitu ostean, mutilak fabrikara joaten ziren eta neskak josten ikastera. Hamabost bat urte zituela hasi ziren Zaldibarren erromeria jotzen. Mutilek ordaindu egin behar izaten zuten eta eurak izaten ziren neskarengana hurbiltzen zirenak dantza eskatzera.

180. Ezkontzako ospakizunak (ZAL-018/040)

Proklamak egiten zituzten ezkondu baino domeka batzuk lehenago. Felisaren sasoian gehienak beltz jantzen ziren ezkontzeko. Berak jantzi urdina eraman zuen eta gizonak trajea. Bazkaria tabernan egin zuten eta bidaia Madrilera hegazkinean.

181. Andreak Eibarko bizikleta fabriketara (ZAL-018/041)

Felisaren sasoiko andre asko Eibarko bizikleta fabriketara joaten ziren lanean.

182. Garia auzokoen laguntzaz jo (ZAL-018/047)

Lehen laguntasun handia zegoen auzokoen artean, garia jotzen zutenean esaterako. Garia eskuz jotzen zuten, uztailean. Gero, makinaz jotzen hasi ziren. Jo ostean, errotara eramaten zuten eta ogia egiteko gorde.

183. Lehen hotz handiagoa eta bero handiak udan (ZAL-018/048)

Lehen hotz handia egiten zuen neguan eta elurra ere orain baino sarriago. Udan bero handiak egoten ziren. Baten moja bat hil zen uholdeak zirela eta.

184. Oinez eta berbaz ikasten (ZAL-019/002)

Umeak oinez ikasteko, trapu bat lotzen zioten besapeetatik eta atzean korapilo bat egiten zioten bertatik oratzeko. Berbaz, beste umeekin batera ikasten zuen, mordoa egoten ziren lehen batera eta.

185. Eskolan adin guztietako umeak gelan batera (ZAL-019/003)

Sei urte zituztela hasten ziren eskolara eta hamalaura arte egoten ziren bertan. Adin guztietakoak batzen ziren gela batean; bereizketa bakarra nesken eta mutilen artekoa zen. Ikasgaiak buruz ikasi behar izaten zituzten. Bizkorrenei aurrean jesartzeko esaten zien maistrak.

186. Amak dotrina baino ez zuen ikasi eskolan (ZAL-019/004)

Gurasoek ez zekiten idazten eta ezta irakurtzen ere. Ama hamalau neba-arrebatatik bigarrena izan zen eta etxean egon behar izaten zuen umezain. Negu bitan joan zen eskolara eta dotrina baino ez zuen ikasi. Hamabi urte zituela joan zen etxetik umezain eta ordutik hainbat lekutan ibili zen neskame.

187. Eskolara orduko harrikoa egin eta belarra moztu (ZAL-019/006)

Eugenia egunero joaten zen eskolara; baina eguerdian, eskolara orduko, belarra moztu behar izaten zuen ahizpak eta berak harrikoa egin. Arratsaldean eskolatik irten eta dotrina ikastera joaten ziren elizara.

188. Eskolan, eraztunaren zigorra euskaraz egitearren (ZAL-019/007)

Eskolako gaiak eta dotrina erdaraz ikasi behar izan zituzten. Eskolan euskaraz egiten zuenari eraztuna ematen zioten eta honek gero euskaraz entzuten zuen beste bati eman behar izaten zion. Honela, aste amaieran eraztuna zuenak erreal bi eraman behar izaten zituen eskolara.

189. Etxean egindako pilotak (ZAL-019/010)

Mutilak pilotan ibiltzen ziren sarri. Etxean egindako pilotak erabiltzen zituzten. Gomazko bola bat jartzen zuten barruan eta gero hariarekin edo artilearekin batu eta josten zuten.

190. Mutilak goitibeheretan eta patinetan (ZAL-019/012)

Mutilek zaletasun handia zuten goitibeherekin ibiltzeko. Mutilek eurek egiten zituzten: hiru ohol josi eta aurrean gorpila jartzen zioten. Patinak ere egiten zituzten paluekin.

191. Ezberdintasuna neska eta mutilen artean (ZAL-019/013)

Umeak zirenean, mutilak eta neskak aparte egoten ziren eta jolasak ere desberdinak izaten ziren. Etxean ere lan ezberdinak egiten zituzten: mutilak solora joaten ziren eta neskak etxeko beharretara.

192. Umetan baserrian egiten zituzten beharrak (ZAL-019/014)

Umetan hainbat behar egiten zuten etxean: artoak zuritu, baba igartzen zenean lekak urkuldu, porru-patatak prestatzen lagundu eta ganadua zaindu eta labrantzarako zuzendu, besteak beste.

193. Neskak tabernara mutil-lagunarekin (ZAL-019/016)

Eugeniaren gazte urteetan neskak ez ziren tabernara sartzen, mutilak bakarrik. Mutil-lagunarekin baino ez ziren sartzen neskak tabernara, bakarrik sekula ere ez.

194. Mutilarekin domeketako erromerian elkartzten ziren (ZAL-019/017)

Gizona Arrateko erromerian ezagutu zuen, hamasei urte zituela. Domeketan baino ez zuten elkar ikusten, gizona Abadiñokoa da eta. Inguruko erromeriarik handiena Berrizen egiten zuten, soinuarekin eta saxofoiarekin. Abadiñon, esaterako, alkateak erromeria egitea debekatu zuen gerraostean.

195. Erromerietan mutilek ordaindu egin behar izaten zuten (ZAL-019/019)

Erromerietan, gehienetan batuta dantzatzen zuten. Mutilek ordaindu egin behar izaten zuten erromerian dantza egitearren eta gainera eurak izaten ziren neskengana hurbildu behar izaten zutenak dantza eskatzeko.

196. Erromerietarako takoiak, makillajea eta gona (ZAL-019/021)

Eugeniak ez du sekula makillajerik erabili, baina ahizpak esaterako beti magotzen zituen ezpainak. Takoiak ere erabiltzen zituzten erromeriara joateko, baina abarkekin jaisten ziren baserritik eta gero janzten zituzten. Neskek beti janzten zituzten gonak, prakarik ez.

197. Lanerako gerrikoa eta jaietarako zinturoia (ZAL-019/023)

Gizonek gerriko beltza erabiltzen zuten baserrian behar egiteko. Ferietara joateko eta jaietarako, ostera, aitzak panazko trajea erabiltzen zuen eta zinturoia.

198. Alargunek bizi osorako lutoa (ZAL-019/024)

Gurasoak hiltzen zirenean, urtebete eta erdian edo urte bati janzen ziren lutoz. Aitita-amamekin, osterak, sei hilabetez. Askotan, emakumeak alarguntzen zirenetik hil arte janzen zuten lutoa. Luto erdiko erropak ere janzen zituzten, denborak aurrera egin ahala. Umeen kasuan, batzuek lutoa jantzi behar izaten zuten Jaunartzea egiteko. Gizonek besokoa janzen zuten luto seinale.

199. Bideak egiten hasi zirenean desagertu zen Mari (ZAL-019/025)

Aititak lehen Anbotoko Mari, "Anbotoko Señorie", sarri irteten zela esaten zuen, sarri ikusten zutela. Bideak egiten hasi zirenean, desagertu ei zela zioen.

200. Laminek gizaki bat euren kobazulora eraman ei zuten (ZAL-019/026)

Laminak kobazuloetan zeudela esaten zuten. Behin gizaki bat euren kobazulora eraman zutela kontatzen zuen aititak. Gizakia gose zen eta belarrian egin zion haginka laminari. Aske uzten ez bazuen belarria jango ziola esan zion eta orduan aske utzi ei zuen.

201. Lehen biztanle gehiago (ZAL-020/005)

Taberna ugari egon izan da herrian, sei-zortzi. Lehen biztanle askoz gutxiago zegoen; Pablo alkate izan zenean 3000. Orain etxe mordoa dago, baina bizitza bakoitzean bat bizi da. Lehen askoz handiagoak ziren familiak.

202. Gerra Bartzelonan erbesteratuta (ZAL-020/010)

Bartzelonako herri txiki batean erbesteratuta egon zen Pabloren familia gerra sasoian. Herritik irteten eta Santanderrera joan ziren, bertan itsasontzia hartu eta Frantziara. Frantziatik trenetan eraman zituzten Bartzelonara. Aita Zaldibarren gelditu zen beharrean.

203. Baso eta ermita pribatuak (ZAL-020/017)

Zaldibar txikia da, ez dago baso askorik. Baso guztiak jabedunak dira, pribatuak. Lehen eduki ei zituen herriak ere basoak, baina frantsesekin gerra egon zenean galdu zituen. Ermitak elizarenak ei dira, baina kopondu udaletxeak egiten ditu.

204. Gerra aurrean hiru taberna (ZAL-022/003)

Gerra aurrean hiru taberna egon ziren eta orain horietako bat baino ez da geratzen. Estankozarrean ere taberna egon zen.

205. Ardoa zahagietan eta aleak zakuetan (ZAL-022/004)

Ardoa zahagietan edukitzen zuten dendan saltzeko. Orduan ez ziren paketeak ezertarako erabiltzen, zakuetan saltzen zituzten aleak.

206. Errazionamendua dendan (ZAL-022/007)

Hilero, egunkarian ematen zuten errazionamenduaren berri: zer eta zenbat jaso behar zuen bakoitzak. Almazenean ere errazionamendua kontutan edukita ematen zizkieten produktuak gero dendan banatzeko.

207. Euskadiko txanponak eta zilarrezko ogerlekoak (ZAL-022/008)

Euskadiko txanponak erabili zituen Juanek bere ezkontzarako. Gero, balioa galdu zuten txanpon horiek. Gerra aurrean, zilarrezko ogerlekoak eduki zituzten.

208. Zaldibarko fraide bat Zornotzan fusilatu zuten (ZAL-022/010)

Zaldibarko fraide bat Zornotzan fusilatu zuten, kanposantuko paretan.

209. Baserrietan eskopetak muntatu Eibarrera saltzeko (ZAL-022/012)

Gerra aurrean tailer txikiak egon ziren herrian: forjak, armaginak... Baserrietako jendeak ere eskopetak muntatzen zituen etxean eta gero Eibarko fabrikei saltzen zizkieten.

210. Gerra aurrean ikastola Zaldibarren (ZAL-022/015)

Gerra aurrean ikastola sortu zuten Zaldibarren. Zortzi bat lagun ibili ziren bertan, Juanen lehengusina irakasle zutela. Gerra hasi zenean desagertu zen.

211. Erdera inposatu zieten (ZAL-022/017)

Dotrina euskaraz ikasi zuten, baina gero gaztelania inposatu zieten. Kaleko jendeak inoiz "hable usted en cristiano" esan izan die. Hala ere, herrian euskaraz egiten zuten. Baserritar askok ez zekien gaztelaniaz.

212. Bilbora txaketa jantzita joaten ziren (ZAL-022/019)

Bilbora joaten zirenean erdaraz egin behar izaten zuten eta baita txaketa jantzi ere. Durangon ere erdaldun asko zegoen orduan.

213. Euskara herririk herri aldatzen da (ZAL-022/020)

Euskara herririk herri aldatzen da, hala ere, elkar ulertzen dute. Otxandion Aretxabaletakoen antzera egiten dute eta Bermeokoak kantuan dabiltzala ematen du.

214. Lehen hiru abade, orain bat ere ez (ZAL-022/021)

Abade-etxea eraiki zuten herrian, baina orain ez daukate bertako abaderik. Lehen, hiru abade zeuden eta etxe partikularretan egiten zuten lo.

215. Umeak elizpean pilotan edo "garzan" (ZAL-022/022)

Umeak elizpean batzen ziren eta pilotan ibiltzen ziren. Pilotak euren dendetan erosten zituzten edo bestela artilearekin eskuz egiten zituzten. "Garzan" ere egiten zuten, forjan harturiko txapekin.

216. "Txirinkillan", "txirrinkolan" eta "txantxurrike" (ZAL-022/023)

Garizuman "txirinkillan" egiten zuten umeek, zeinek urrunago bota makila. Bestelako egunetan, "txirrinkolan" egiten zuten barriketako edo bizikletetako uztaiekin. Bidean edo elizpean "txantxurrike" jolasten zuten: koadroak margotu eta euren gainean salto egin.

217. Mutilak "txori topetan" udaberrian (ZAL-022/025)

Mutilak basoan txori-habiak topatzen ibiltzen ziren udaberrian, "txori topetan": zozoak, kardantxiloak, kurloiak, artatxoriak, txantxangorriak, birigarroak...

218. Elaiak sakratuak dira (ZAL-022/027)

Elaiak sakratuak dira, ehiztariek ere ez diete tirorik botatzen. Baserrietan egiten dituzte habiak. Txepetxa galdu egin da, orain ez dira ikusten.

219. Kukua txantxangorriaren habian (ZAL-022/029)

Kukuak txantxangorriaren habian egiten du arrautza eta jan egiten ditu txantxangorriaren arrautzak.

220. Kukua eta dirua (ZAL-022/031)

Kukua lehenengoz entzuten zenean, dirua eduki behar izaten zen poltsikoan. Honela, ez zela urte guztian dirurik faltako esaten zuten.

221. Errekara edo Debako hondartzara bainatzera (ZAL-022/032)

Mutilak errekan bainatzen ziren. Zakuak erabiltzen zituzten bertan presa moduko bat egiteko. Inoiz, Debara ere joaten ziren hondartzara. Han, andre batzuek bainujantziak alokatzen zituzten.

222. Gaztetako erromeriak (ZAL-022/034)

Erromeria Zaldibarren bertan edukitzen zuten, baina nagusiagotan Durangora joaten ziren. San Esteban eguneko erromeria ederra izaten zen Zaldibarren. Inguruko herrietako gazteak batzen ziren bertan.

223. Erromerian piezako txakur handi bat (ZAL-022/036)

Erromerietan piezako txakur handi bat kobratzen zieten mutilei. Lehenengo, neskak hasten ziren dantzari eta gero mutilak joaten zitzaizkien dantza eskatzera.

224. Domeketan trajea, gorbata eta gabardina (ZAL-022/037)

Mutikotan praka "milraiasak" eta abarketak janzten zituzten erromeriarako. Gero, domeketarako trajea, gorbata eta gabardina janzten hasi ziren.

225. Hamabi-hamahiru urte zituztela tabernara (ZAL-022/039)

Hamabi-hamahiru urte zituztela Jose Mariren tabernara joaten hasi ziren. Gaseosa edaten zuten. Musean ere bertan ikasi zuten. Orduan, andreak ere karta-jokoan ibiltzen ziren portaletan.

226. Andreak ez ziren tabernara sartzen (ZAL-022/040)

Erromeriara joaten hasten zirenean hasten ziren mutilak txikitoak edaten. Garagardoa ere bazegoen orduan eta koñak klase ezberdinak. Orduan andreak ez ziren tabernara sartzen.

227. Mezara orduko kopa eta galletak (ZAL-022/041)

Lehen baserritarrak zazpietako mezara joaten ziren eta kopatxoa hartzen zuten galleta pare batekin. Meza ostean ganaduei jaten ematen joaten ziren.

228. Gerra aurrean karlistak eta nazionalistak (ZAL-039/001)

229. Gerra aurrean eskumako eta ezkerrekoen zentroak (ZAL-039/002)

230. Eskolaz eta Errepublikaz (ZAL-039/003)

231. Zelan jakin zuen gerra hasi zala (ZAL-039/004)

232. Mendigoxale Eguna Durangon 1932an (ZAL-039/005)

233. gerrako lehenengo egunak eta Ukituko leizea. (ZAL-039/006)

234. Eibartarrak Zaldibarren errefuxiatuta (ZAL-039/007)

235. Erretaguardiako Zaldibarko kontuak (ZAL-039/008)

236. Zaldibartik Zengoitra "seguruago" egoteko (ZAL-039/009)

237. Nazionalak Zaldibarren sartu (ZAL-039/010)

238. Castet komandantearen heriotza Santamarinazarren (ZAL-039/011)

239. Nazionalak Zaldibarren ikurrinak erretzen (ZAL-039/012)

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-02-07

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com